

1.990

LEITZA 90

tiburcio donearen festak abuztuak 10-15

PLAZAOLA

ETXAKO ALDIZKARIA

1990

1.990 PESTETAKO EGITARAUUA

Leitzar eta bisitari guztiei, agur

Herriko festak ospatu beharrean aurkitzen gara urtero bezela, 90eko hamarkadaren asiera honetan.

Urte berezia Leitzarrentzat aurtengoa, zeren ekintza ugari antolatu dira eta beharrezkoak diren obra asko aurreratzen ari dira, herri honek merezi duen irudia har dezan.

Ez da unea lan horiek aipatzen asteko, baina gure esker ona eman nahi diegu beren lankidetasuna eta jarrera ona azaldu duten Leitzar guztiei, ari diren obra lanak ongi eta azkar bukatzeko.

Era berean eskertu nahi digu baita ere, festa hauek antolatzen parte artu duen gaztedia.

Aipatu nahi dugu azken urte hauetan, herriko kaleetan sortzen zaigun eragozpen bizia, hau da, hotxeek sortzen duena.

Herritar askoren nahia litzateke kalean lasaiago ibiltzeko bidea izatea, eta hortarako komeni litzateke bertako jendeak kotxea etxean uztea, festa egun hauetan, Leitzako distantziak ez bait dira hain haundiak, baserritakoak ezik.

Gure nortasunari eutsiz, humore ona eta elkartasuna jabe izan daitezela jai egun hauetan.

*¡¡¡Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Leitzar eta bisitari guztiei!!!*

Saludo a todos los Leizarras y visitantes

Nos encontramos, como todos los años, en la grata necesidad de celebrar las Fiestas Patronales.

Es este un año especial para los Leizarras ya que se están desarrollando los trabajos y obras que tanta falta hacía y que van a dar a este pueblo la buena imagen que se merece.

No es este el momento de enumerar estas obras, pero queremos agradecer a todos los que han demostrado su profesionalidad y buen hacer.

Así mismo agradecemos a los jóvenes que han tomado parte en la organización de estas Fiestas.


Sería del agrado de muchos Leizarras que, para poder andar más tranquilos por el pueblo, evitásemos el uso innecesario de nuestros vehículos, ya que las distancias de Leitza no lo requieren, a excepción de los caseríos.

Deseamos que el buen humor y la amistad predominen en estas Fiestas, como es nuestra costumbre.

*¡¡¡Os deseamos Felices Fiestas!!!
a todos los Leizarras
y visitantes*

Leitzako Udalak Aurrera Kirol
Elkartearen laguntzaz 1990ko
Abuztuak 10, 11, 12, 13, 14 eta
15ean Tibürtzio Donearen
ohoretan ospatutako pesten
egitaraua.

Programa de festejos organizados
por el Ayuntamiento de Leitza,
en colaboración con el
C.D. AURRERA, en honor de su
patrono San Tiburcio y que
tendrán lugar los días 10, 11,
12, 13, 14 y 15 del mes



IGANDEA

DOMINGO UZTAILA 29
JULIO

Pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz (gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaiekezuela).
Arratsaldeko 6etan: Herrien arteko Herri Kirol Txapelketa. (Zubieta, Basaburua eta Leitza) Soka-Tira, Zozkor apustua, trontzalariak,

aizkolariak, txingak eta zaki karrera.

Arratsaldeko 7etan: Kalejirak ARTADI txarangarekin.

Arratsaldeko 7,30etan: Dantzaldia TTURRUTAK taldearekin.

Gaueko 11tatik aurrera: Dantzaldia TTURRUTAK taldearekin.

5 ABUZTUA
AGOSTO

IGANDEA

DOMINGO

«UMEEN EGUNA»

Goizeko 8retan: Diana Txistulariekin.

Goizeko 9etan: Zaldi txikiak (poniak) plazan.

Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia "Korporazio" berria dantzari ttikiekin batera joanen delarik. "Korporazioa" Udaletxean bilduko da 10,15etan.

Goizeko 11,30etan: Umeentzat jokoak.


Arratsaldeko 4etan: Txirindulariak herrian zehar. Ondoren zaldi ttikiak plazan.

Arratsaldeko 5,30etan: Dantzari txiki saioa eta ondoren bonba japoniarrak.
Arratsaldeko 7retan: Herriko trikitalarien saio bikain bat.

Arratsaldeko 8retan: Kalejira ARTADI txarangarekin.

Arratsaldeko 8,30etan: Dantzaldia NAYGI taldearekin.

Gaueko 12etan: Berriz ere dantzaldi NAYGI taldearekin.



OSTIRALA

VIERNES

ABUZZTUA
AGOSTO 10



Arratsaldeko 6retan: Ezkila jotzea eta etxafuegoak botatzea pestei hasiera emanez. Ondoren kalejirak txistulari eta ARTADI txarangarekin eta buru-haundiak.

Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan: Dantzaldia GAU BELA taldearekin.

11 ABUZZTUA
AGOSTO

LARUNBATA

SABADO

«PESTA
BEZPERA»

Goizeko 7,30etan: Txistulari eta ARTADI txarangak jotako Dianak.

Goizeko 9etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.

Eguerdiko 12etan:
AURRERAKO
ezpatadantzariak plazan.

Ondoren pilota partiduak. Eguerdian ere KOKTEL IV LEHIAKETA


Arratsaldeko 5,30etan:
Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: Angel Alduntzin eta Luis Erbitiren omenez Herriko Ingurutxoa dantzatuko da nahi duenak parte artuz.

Arratsaldeko 7,30etan: Pilota partiduak pilota lekuan.

Arratsaldeko 8etan:
Dantzaldia GAU BELA taldearekin.


Gaueko 12etan: Dantzaldia GAU BELA taldearekin.



IGANDEA

DOMINGO

ABUZTUA
AGOSTO 12



Goizeko 7,30etan: Dianak, txistulari eta ARTADI txarangarekin.

Goizeko 9,30etan: Enzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11,30etan: Artzai zakurren lehiaketa, estazio ondoan.

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan: AURRERAKO Dantzarien saioa plazan.

Ondoren bonba japoniarrak.

Arratsaldeko 8retan:

Dantzaldia JOSELU

ANAIK taldearekin.

Gaueko 12etan: JOSELU

ANAIK taldearen beste saio bat.

13 ABUZTUA
AGOSTO

ASTELEHENA

LUNES



Goizeko 7,30etan: Txistulari eta ARTADI txarangarekin dianak.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11tan: Herri Kirolak Perurena eta Saralegui Mindeguia eta Larretxea; Tronzalariak = 2 bikote Leitzeko aizkolari gazte eta adinekoak.

Leitzeko laisterkariak. Gizon proba 1.000 kiloko harriarekin (alondegiko arria): Joan Olea "Sakoneta" (Bizkaitarra).

Arratsaldeko 5,30etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 7,30etan: Pilota partidu profesionalaK pilota lekuan.

Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan: Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Pepe

ASTEARTEA

MARTES

ABUZZTUA
AGOSTO 14

Goizeko 7,30etan: Dianak txistulari eta txarangarekin.

Goizeko 9,30etan: Enzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11tan: Bertsolariak zinean: LIZASO -

EUSKITZE -

PEÑAGARIKANO -

MAÑUKORTA.

Eguerdiko 12,30etan: Sagardo

degustazioa plazan.

Arratsaldeko 5etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6,30etan:

Aurrerako dantzariak plazan.

Arratsaldeko 8retan:

Dantzaldia AKELARRE taldearekin.

Gaueko 12etan: Dantzaldia AKELARRE taldearekin.



15 ABUZTUA
AGOSTO

ASTEAZKENA

MIERCOLES



«EZKONDUTAKO- EN EGUNA»

Goizeko 7,30etan: Dianak txistulari eta ARTADI txarangarekin.

Goizeko 9,30etan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11,30etan: Larbando Futbol zelaian 3. mailako

futbol partidua.

Eguerdiko 2,30etan:

Aurrerako bazkideen bazkaria.

Arratsaldeko 6retan:

Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

Arratsaldeko 7retan:

Ezkonduen ingurutxo.

Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan: Dantzaldia HARITZA taldearekin.

PROGRAMA FIESTAS PATRONALES 1990

29 de JULIO - Domingo

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música (solamente se debe entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada).

6 de la tarde: Campeonato deporte rural.

7 de la tarde: Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

7 de la tarde y 11 de la noche: Bailables a cargo del grupo TTURRUTAK.

5 de AGOSTO - Domingo

«DIA DEL NIÑO»

8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

9 de la mañana: Ponneys (caballos) en la Plaza.

10,15 de la mañana: Serán los mismos niños los que representen a nuestro Ayuntamiento, siendo elegidos estos, entre los dantzaris pequeños. A esta hora y en la plaza se ofrecerá la vara del Alcalde a estos niños, dejando la representación del pueblo en sus manos.

10,30 de la mañana: La nueva "corporación" acompañada del resto de los dantzaris txikis, acudirá a la Misa Mayor.

4 de la tarde: Carrera ciclista. Después ponneys en la Plaza.

5,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera y a continuación bombas japonesas.

7 de la tarde: Actuación de los trikitalaris del pueblo.

8 de la tarde: Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

8,30 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo NAYGI.

10 DE AGOSTO - Viernes

6 de la tarde: Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación Kelejiras y cabezudos a cargo de la txaranga Artadi y los Txistularis.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo GAU BELA.

11 DE AGOSTO - Sábado

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

10,30 de la mañana: La Corporación acompañada por los dantzaris del Aurrera acudirá a la Misa Mayor.

12 del mediodía: Actuación de los ezpatadantzaris del Aurrera. A continuación partidos de pelota. A la misma hora IV Campeonato de Kokteles.

5,30 de la tarde: Vaquillas en la Plaza.

6,30 de la tarde: Se bailará el Ingurutxo de Leitza en homenaje a Angel Alduntzin y Luis Erbiti.

7,30 de la tarde: Partidos de Pelota.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo GAU BELA.

12 DE AGOSTO - Domingo

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11,30 de la mañana: Campeonato Comarcal de Perros de Pastor al lado de la Estación.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Actuación de los Dantzaris del Aurrera. A continuación bombas japonesas.

8 de la tarde y a las 12 de la noche: Bailables con el grupo JOSELU ANAIAK.

13 DE AGOSTO - Lunes

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Deporte Rural.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Ingurutxo de Leitza. A continuación bombas japonesas.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con AKELARRE.

14 DE AGOSTO - Martes

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Bertsoaris en el cine: LIZASO - EUSKITZE - PEÑAGARIKANO - MAÑUKORTA.

12,30 de la mañana: Degustación de sidra en la plaza.

5 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Dantzaris del Aurrera.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo AKELARRE.

15 DE AGOSTO - Miércoles

«DIA DE LOS CASADOS»

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.

11 de la mañana: Aizkolaris veteranos en la Plaza.

11,30 de la mañana: Partido de fútbol de 3.ª división en Larbando.

2,30 de la mañana: Comida de los socios de Aurrera.


6 de la tarde: Encierro de los casados y embolados.

7 de la tarde: Ingurutxo de los casados.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo de la orquesta HARITZA.

OHARRAK

AVISOS



1. **INCANSABLES** txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten **PELOTA BERRIK** antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu, esku programen bidez, bertan lekua

1. La charanga **INCANSABLES** animará el pueblo todos los días de fiestas mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad, en el ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por **PELOTA BERRI**, mediante los correspondientes

PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

13 Zenbakia

Y CASA


ARMAS DE LA


DE LEIZAS

VARRA

DEL

LE VOTI RE RE IN O DENA





El escudo

La descripción, en términos heráldicos, del escudo de Leitza, es la siguiente; en campo de oro, un roble arrancado de sínople, con un lobo pasante en su color natural, lampasado de gules y atravesado al tronco. Bordura de gules con ocho sotueres de oro.

Con palabras más al uso diríamos que sobre un fondo amarillo destaca un roble verde que muestra las raíces al aire. El lobo cruzado sobre su tronco, en posición de andar, se representa en su color, con la lengua y el falo rojos. Todo el conjunto está rodeado por una bordura roja, con ocho cruces de San Andrés amarillas.

La versión más antigua que conozco de estas armas, y que es la anteriormente descrita, se halla recogida en una certificación extendida en Madrid el cuatro de marzo de mil setecientos veintidós por Alfonso de Guerra y Villegas, Caballero de la Orden de Santiago, Cronista y Rey de Armas principal y más antiguo de Felipe V.

En dicho documento se indica a su vez, que el blasón ha sido reproducido del nobiliario obra de Miguel de Salazar, quién fuera Capellán del Rey Felipe IV, y que redactó la obra durante el reinado de éste último, que se extiende de 1621 a 1655.

Si bien la descripción escrita del escudo que se hace en dicha certificación es incompleta, se acompaña sin embargo una preciosa ilustración.

Guerra, con grandes dosis de fantasía, explica el significado de las armas de Leitza; "El Oro en el Arte Aráldica, es viva Imagen de la Luz, Poder, Constancia, Sabiduría y Nobleza; sobre que hay Ley promulgada, para que ninguna persona pueda poner Granar y Pintar Oro en sus Escudos de Armas, no siendo de la Calidad que va prebenida; El Roble la fortaleza y el Esfuerzo y La Providencia, por haver sido su fruto el primer Sustento de los Hombres; El Lobo por Tropheos de vencimiento y hechos valerosos, y parentesco con la Esclarecida Casa de los Señores de Vizcaya. Como Las Aspas, por el propio motibo y haver Concurrido en la Vatala de Baeza, dia del Apostol San Andrés, que la tiene por Insignia de su Martirio, que fué en ella y este Subceso año de mil Doscientos y veinte y siete, y así el Señor de Bizcaya, y sus Parientes las pusieron en sus Escudos o por Orla...".

La versión que se ha descrito del escudo, es la que se reproduce en las vidrieras del Palacio de la Diputación Foral y asimismo en la fachada de la Casa Consistorial de Leitza, cuya construcción finalizó el año 1917.

En todo el período comprendido entre las dos fechas

Ripa,¹ quién al describir el escudo de Areso, indica; "Usa este blasón desde el año 1770 en que se separó de Leiza. Ambas usaban un árbol atravesado en su base por un lobo, timbrado por una estrella de seis puntas y la inscripción LEI-CA a los lados del árbol". Esta pequeña modificación de introducir la estrella y el nombre de la localidad, además de carecer de fundamento parece que fue efímera, ya que en la actualidad no conocemos ningún ejemplar de este tipo.

Modernamente se ha extendido la deformación de representar el árbol con las raíces hundidas en tierra, aunque éste es un detalle que convendría rectificar ya que, como se ha visto, no se ajusta a su tradición histórica.

Se ha indicado que desde mediados del siglo XVII está documentada la utilización por la villa de Leitza de su actual escudo, pero es también lógico suponer que su origen sea más antiguo. Respecto a este tipo de armas, Menéndez Pidal de Navascués² dice; "El tema del animal con un árbol es un caso especial (...) en Navarra parece que llega en la segunda mitad del siglo XIV, aproximadamente a la vez que al norte de Burgos y León. El área de su aparición orienta hacia Vizcaya el origen del tema. Pero su extraordinaria fortuna, su más interesante característica, quizá deba explicarse como resurgimiento de un antiguo sentido esotérico o simbólico...".

Efectivamente, la combinación del animal cruzado sobre el tronco de un árbol es muy frecuente en la heráldica navarra, tanto en la referente a los apellidos como en la municipal. Ejemplos de esto último nos lo proporcionan los escudos de las siete localidades del valle de Aezkoa, de Barillas, Basaburúa Mayor, Larraun, Leoz y Santesteban.

De los seis casos citados, dos representan jabalíes, dos perros y los otros, correspondientes a Larraun y Basaburúa, lobos. Se da la curiosa circunstancia, de que ambos municipios son limítrofes con Leitza. Concretamente el escudo antiguo de Larraun, sólo se diferencia del de Leitza en dos pequeños detalles; carece de bordura (pieza que frecuentemente solía añadirse con posterioridad), y el campo es de plata. Más tarde, en 1512, el rey Fernando el Católico le añadió las armas de Aragón y de Navarra, con lo que adoptó su forma actual.

Cabe aquí plantearse una pregunta; ¿Son las mismas armas las de Leitza y las primitivas de Larraun? La posible existencia de instituciones que englobaran a ambos municipios antes de la conquista del Reino de Navarra, proporcionaría, en su caso, elementos para dar una respuesta afirmativa. No obstante no he encontrado información alguna que respalde esta hipótesis. Tampoco cabe descartar por otra parte que se

La bandera

La bandera de Leitza (en realidad se trata de un pendón), es de color rojo, con el escudo de la villa en el centro. El blasón respeta el diseño tradicional y está adornado con un casco y lambrequines. En su parte inferior tiene un lema en vascuence que reza; "Bi gauza ikusten dira gure mendiyetan Gurutza sinismenaren agerkaya ta aritza gure indartasunarena". Sobre el escudo está inscrito en grandes letras el nombre de "Leiza", y debajo de él, con idénticos caracteres, la leyenda; "Nor Jaungoicoa bezala".

Actualmente hay dos banderas, la antigua y la confeccionada el año 1989 por las monjas del convento de la Compañía Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul de Leitza. Los dos estandartes son idénticos, ya que las religiosas quitaron el escudo bordado en el antiguo y, tras restaurarlo, lo colocaron en la nueva bandera. Posteriormente cosieron unas armas pintadas, copia exacta de las anteriores, en el más viejo de los estandartes.

No sé si en los Libros de Actas del Ayuntamiento figurará algo sobre la época en que se adoptó la enseña descrita. Dolores Baleztena, que hace una descripción de la bandera,³ no aporta datos al respecto. De todas formas, no creo que sea anterior al presente siglo.

Si examinamos un poco la Historia, a la hora de determinar la antigüedad de las banderas locales, parece que uno de los grupos más antiguos es el integrado por las que se conservan en muchas localidades del norte de Navarra. Se trata de bellos estandartes multicolores confeccionados con trozos de tela de distinto tamaño y color, cosidos entre sí. Constituyen un ejemplo de lo dicho, las banderas municipales de Lesaka, Bera, valle de Roncal, Baztán, etc. Es posible que este tipo de estandartes estuviera antes generalizado en toda la zona.


A principios del siglo XVIII, con Felipe V, se implantó en las ciudades la bandera blanca con las aspas de Borgoña en rojo, con lo que se unificó la diversidad existente. Con Carlos III, fueron nuevamente sustituidas por sus enseñas tradicionales anteriores o por los colores rojo y gualda.⁴ Hubo también casos como el de Ochagavía, que incorporan las aspas al tipo de bandera multicolor anterior, o como el de Tafalla que simplemente conserva el modelo implantado por Felipe V.

Finalmente, la Diputación Foral de Navarra, con fecha 15 de junio de 1912, adoptó el siguiente acuerdo; "Prevenir a los Ayuntamientos que carezcan de bandera y deseen adquirirla, que en la de cada uno debe figurar el respectivo escudo de armas con la mayor exactitud posible en cuanto a los elementos del mismo; que el color de la bandera debe ser el que por razones históricas o por tradición haya sido constante en la bandera usada por el Ayuntamiento; que el que nunca haya tenido bandera y no encuentre en su archivo noticias que aclaren dicho punto, debe adoptar para su bandera el color de la de Navarra, que es rojo...".

Por supuesto que antes de la fecha indicada existían banderas municipales en el fondo de ese color, pero si al acuerdo de la Diputación le añadimos el dato de que las frases en euskera incluidas en el estandarte siguen las normas ortográficas divulgadas a principios de siglo podemos concluir diciendo que lo más probable es que la actual bandera de Leitza se adoptara en el período comprendido entre los años 1912 a 1936.

Leitza, 19 de abril de 1990

EL SECRETARIO DEL AYUNTAMIENTO



Andoni Esparza Leibar

1. Otazu Ripa, Jesús Lorenzo. "Heráldica Municipal, Merindad de Pamplona I". Diputación Foral de Navarra. Colección "Navarra. Temas de Cultura Popular". Pamplona.

2. Menéndez Pidal de Navascués, Faustino. "Libro de Armería del Reino de Navarra". Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao 1974. Pág. 33.

3. Baleztena, Dolores. "Saski Naski de Leiza". Diputación Foral de Navarra. "Navarra Temas de Cultura Popular". n.º 272. Pamplona.

4. Cabezudo Astráin, J. "Tafalla". Diputación Foral de Navarra. Colección "Navarra Temas de Cultura Popular". n.º 115. Pamplona.

Garai baten bai omentzen Leitzen mutill bat izengoitz "TXABALA" deitzen zioana, lotsati xamarra edo, neskatxeiñ suerte haundirik gabeko horietakoa; ta bere gustoko andre-gairik ezin billatu. Bere gurasoak esan omentzioan berak billatuko zioala andregai. Baño hori ere ez nahi "Txabalak", nork berak harrapatutako amorraie goxoagoa izaten zela ta. Sorginkerie furi-furin zebillen garaiean, Zubietan bai omentzen "Jito Larralde" deitzen zioan bat, sorginkeria eta amore kontun asko zekiena.

"Txabalak" zirt edo zart in behar zuela ta erabaki omentzun berangana yoatea. Ta "Jito Larralde" honek sartu omentzion kolkoan amore belarra, esanez: "honekin inguratuko zaizkitzo neskatxek eulik eztire bezala. Ta hala in ere. Gabero "Txabala"ri etortzen omentzekitzion alor goiena bete neskatxe. Baño elizera abiatzen zenean ezkontzeko denak ihes gittin eliz ataritik. Begira zer dion berak:

"Jito Larralde" k eman ditt kontseju bat azkarra ixtanteko kaballero zera "Txabala" kolkoan sartu ziren amore belarra.

Kolkoan sartute ongi kadartzuz estutu balio zittuela bi edo hiru ezkutu honekin berrogei bat emakume gantxutu grano bat ere ez nuen neretako bentzitu.

Alor goienean barrena neskatxen korride ongi nengoan guziak etorri balire gero eskutik hartute elizera bide zementerioan denak ihes in dire.

Garai batean emakumeak ere erabiltzen omentzuen amore belarra kolkoan sartute, erromerire zizenean.

Gaur ere erabiltzen dire balarrekin egindako usai goxozko "kolonia" garesti-garesti horitakoak, beste izen batzukin noski. Bai emakumezkoak ta gizonezkoak ere, bata bestea ekar erazteko.

Hortarako berezienak eta gehiena erabiltzen direnak marka hok omen dire:

emakumezkoak: Christian Dior "Poison, Diorísimo".

gizonezkoak: "Paco Rabanne".

Honekin busti (iurtzi) ezker dantzalekutan neskatxek dantzarako eske gehio izaten omen dute ta mutillek kalabazaz gutxio. Suerte on dizuela!

Oraindik ere Valentzi alden erabiltzen dire holako gauzek. Abadebordako Karmen eta bik izandu giñen oporretan, da Gandiako hotel baten geundela bertako kamarerak kolonia piskobat eskatu zidan dantzara yoateko, mutill batekin gelditue zela eta gau hori beretzat oso garrantzitsue edo berezie zela. Iurtzi nun akelarrera yoateko moduan. Bihamonean oso alai ta pozik azaldu zen esanez: "Aquello ya resultó. Ya se me declaró". Nonbat ere etzegoen zaille!

Hemen argi dago esaera zaharrak diona: zakur bera ustai aldatuarekin.


Garaiean garaieko kontuk. Lehen sorginkerik eta orain sorgintasune.

Amore Belarra

kadartzue=lokarri edo trentzilla bat.

zemetirioa=eliz-atarie.

ustai=collar.



Izaieta; edo ipotxak hazi zireneko basoa

Leitzan bizi garenotatik zeinek ez du Izaietako zuhaitzia ezagutzen? Otarrea Leitzalarreko honttotaz asetu ondoren arbol handi horietan zehar pasiatu izan den gipuzkoar asko dago ere.

Ni Izaietako itzalera sartzen naizen denetan zeharo harritzen naiz. Urtero, behin edo behin, bueltatxo bat ematen dut zutabe itzelen artean; baina badakit ez naizela sekula ohituko; zurezko haitz horiek munduko zuhaitzik handienak baitira Leitzan bizi garenontzako.

Zenbatak daki ordea Izaieta nondi eta nolatan sortu zen?

Arbolak Iratiko basotik ekarri omen zituzten landare txiki zirela. Gaur Leitzalarrean ikusgai diren izaiak (Abies alba de beraien izen zientifikoa) ez dira Euskalerriko alde honetan berez hazten. Nafarroan piriniotako menditan ikus daitezke bakarrik.

Esan bezala zuhaitzak Iratitik ekarri zituzten; orain dela 170 urte baino gehiago! Norbaitek, udaletxeko jendeak edo, gero errepoblazioan erabiltzeko nahi omen zituen. Baina ezustean, urteak pasa ahala, landareak zuhaitz ederrak izatera heldu ziren, eta hasera batetan etekina lortzeko landutakoa bertan gelditu zen, Leitzarron sinbolorik maitenetako bat bezala.

Eta zahartzen hasi dira... Ez duzu ba gure leku kuttun hu-

Suteak

Aurten sute ikaragarriak izan dira Euskal Herrian. Mendi asko kiskaliak eta etxe erreak era bai. Baina lehenere izaten ziren suteak. Orain dela hirurogei ta bat urte Leitzeko mendiek hartu zuten jipoi ederra.

Lehenago Leitzelarren artzai asko zen. Leitzeko etxe gehienak badute berenardi-borda, belatsoa eta txabola inguruan dituela. Artzaikoa eta nekazaritzatik bizitzen zen yenderik gehiena.

1929-ko apirilaren 18an eta 19an sute izugarria izan zen Leitzelarren. Norbait luperrie egiten ari zen eta erreloa biztu. Haize haundie zebilen eta prasak larrera erman eta mendiari su harrazi. Gero sue indartu zenean haizeak illakiak hartu eta kamioa eta erreka airean irago eta Ezkurmendiri su harrazi zion. Errezkille yota yende asko yoan zen sue itzaltzea baño ez zuten deus egiterik izan, sue indartue eta haize haundie baitzebilen. Leitzekoan hamahiru ardi-borda eta oihan palda haundiak erre ziren. Ardi mordoska ere erre zen.

ETXE ERREAK LEITZEN. Paper zaharrek diotenez 1421. urtean hamalau etxe erre ziren barrenen zuten guziarekin. Negarra politte utziko zuen herrian honenbeste etxe erretzeak. Ikus nola dion J.R. Castroren Nafarroako Artxibu katalogoko 33. tomoak, 1013 zenbakian:

"1421, septiembre 18. Carlos III al tesorero del reino y al guarda de sus cofres que, informado por Johan García de Lizasoáin, oidor de comptos, de que en el pasado mes de agosto se quemaron en el lugar de Leiza 14 casas, con todo lo que contenían, y hubo que derribar 2 casas para detener el fuego, ha concedido gracia y remisión a los de dicho lugar, para que puedan rehacer las antedichas casas, de los 11 florines y 5 sueldos que les correspondía pagar..."

Ura eta sua belaunpetik, esaera zaharra da.

Leitzeko lantegial mendeetan zehar

Ikusten denez Leitze eta inguruetan burni-metal asko zen eta oihanak ere bai galantak ikatza egiteko. Mendietan ikaztoi edo txondor-plaza askorekin topo egiten da. Leitzen baziren ola mordoska: ERREZUME (OLAZARRA), IÑURRIZTA (OLABERRIE), ATIBIE, URTO, ESKIBAR, SARASAIN, AKOLA, BURDIÑOLA, ELEN, DOMARDOLA (BONBARDOLA?), IBERO eta URBIETA.

Errezume aurrena burni-fabrike zen eta lehengo mendeen paper-fabrike egin zuten.

Olaberrie da azkena gelditu zena. Oraindik mende honetan, hamalauko gerratean, lanean ari zen.

Rafael Gómez Chaparrok "La Desamortización Civil en Navarra" liburuan beste bi aitatzen ditu: "fábrica de cobre con huarta" eta "tejería en Miralbor". Kobre fabrike hori non ote zen? "Tejería" hau berriz orain yendeak "Fabrike-zarra" deitzen dion leku hortan izanen zen seguruaski. Mailbor inguruan dago paraje hau.

Ez dira atzo goizekoak ola edo burni-fabrike hauek. Batzuk orain dela serobun urte lanean izan ziren.

zer dioten Nafarroako Artxibuko paper zaharrek:

"1936, febrero 5. Pamplona. Las gentes de Comptos mandan a Miguel Ibáñez, dicho Ezquer, ferrón de la ferrería de Ibero, comparezca ante la Cámara para responder a las reclamaciones de Martín García Añorbe, mercero, vecino de Pamplona".

"1398, junio 8. Pamplona. Las gentes de Comptos mandan a Martieco, ferrón de la ferrería de Esquíbar, comparezca en la Cámara para responder a las reclamaciones de Martín Martínez de Areso, vecino de Leiza.

OLASO ere "ola" ote zen? Baietz dirudi. Begira zer dion dokumentu batek:

"1399, enero 20. ...Peru Larizco y Sancho Zubira, ferrones de las ferrerías de Esquíbar de suso y de Hollasau (Ollasun, Olassan)."

Irakurtzeko gogoia duenak makina bat histori aurkituko ditu "Catálogo del Archivo General. Sección de Comptos"ean. 49 tomo dituen lan hau J.R. Castro eta F. Idoatek egin zuten. Orain tomo gehiago argitaratzen segitzen du J. Baleztenak.

Olagizonen berri jakin nahi duenak Mogelen "PERU ABARKA" irakurtzea dauka. Han aurkituko ditu lantegi hauei buruzko xehetasun asko.

BATAN. Erasoten dago Batan. Oihal fabrike zen. Kapusayek ere egiten zituzten. Orduan era orain bezala baziren lapurrak eta batek maindire mordoska ohostu zuen. Gero, denboran buruta, yoan zen konpesatzea eta aitortu zuen bere pekatue. Apeza harritu zen eta klaro, klaro esan zuen: "Hamabi dozena maindire ohostu dittozola?" Eta ondoko yende guziak entzun zuen haren pekatue.

Gerrateren batean polborin bihurtu zuten Batan. Bat yoan zen gauez idiekin polbora ohostutzea. Gurdie karga-karga egin eta abiatu zen bere etxe aldera. Bidean heldu zela ohartu zen polbora galtzen ari zela, herrenkada osoa eginez zetorren. Yoan zen galtzen nondik hasi ote zen ikustea eta Batan ingururaino iritxi zen. "Arrastotik galduko nak" pentsatu zuen eta su eman zion. Gurdira allatu zen sue eta booomm! gurdie eta idien arrastorik gehiago ez zen ikusi.

Bi histori hauek Dendarineko Emilia zenak kontatu zizkidan jertsea probatzea yoan nintzen batean.

Lan hau eginda gero, ekainaren 21ean, izan naiz Ibero eta Urdiñolako olak ikusten. Iberokoan ageri dira kanalea, bi labe eta lau edo bost arku eta ate eta zirritu asko. Zakardiak eta huntzak hartua dago gehiena. Urdiñolakoa oihan itsu-itsu batean dago, Goizuetako Bordaberri baserriaren azpikaldean. Etxe hontako Antonio Elizaldeak erakutsi dit xalo-xalo ola zahar hau. Paretak han daude beren arku eta leihoeekin. Erreka pasatzeko tunel txiki bat ere badu. Eleun-en (Urdiñola baño gorago) kanalea eta zer edo zer bai omen da, baina ni ez naiz izandu.

Errezume, Ibero eta Urdiñolak garbitu eta zaintzea merezi lukea. Aste buru batzuk izentatu eta hartu ittai, aitzur, aizkora eta motorzerra eta sasiak garbitu eta paretetako zuhaitzak moztu. Eta holako gauzak txukuntzeko eta zaintzeko instituzioen laguntza eskuratzen ahalegindu ere bai.

Gure aurrekoen lantokiak eta gure historia dira.

Leitzako Gorabeherak

Haratx ba, ohartzeako, berriz ere gainean gure Santiburtzioak! Oraingoan ezustean harrapatu gaitu guztiok. Halere, Azpiroz-Saralegiri esker, etxezuritze lanak bete ditugu. Ez letxadarekin garai batean bezela noski, baina dagoen hautsarekin, zuritu bagenitu bezelaxe gelditu zaizkigu...

* * *

Eta apustuak kalean dauzkagu: soineko txuriurdina ala konjunto beis kolorekoa? Ez, ez, ez gara Erreal eta Osasunaz ari, gurekontzejalaz baizik. Nola egingo duen mezarako bidea San Tiburtzio egunean bada. Bata ala bestea, bera eleganteena. Xarmangarria zera...

* * *

Jaki izandu degu jakiten delako, Portugalera joan zaigula Belako. Neska guztiek nahi zuten etxerako, handik aldegitan ze negar da malko...

* * *

Aurten noiz hasiko zaizkigu festak, arratsaldeko seietan ala eguerdiko hamabietan joan den urtean bezela? Ea, Udala eta Kleroa batera jartzen zaizkigun...

* * *

Lehen urtebetetzea

† XAKA LASTUR xexena

1989ko Santiburtzioetan hil zen, behar zituenak hartu ondoren.

—Goian Bego—

Zure ahaide eta adar-jotzaileek ez zaituzte ahaztuko.

Leitzan, 1990ko Abuztuaren 1In

* * *

Gure gaztedia ez da aspertzen, saskibaloitxap0elketa bakatu eta futbol-lehiaketari ekin dio berehala. Saskibaloian 70ek'hartu zuten parte, 7 taldetan banaturik. Futbolearen berri 180ek,15 taldetan. Erra da...

* * *

Eta, zer diozue Aurrera ekipoak aurten egin duenaz? Aurrenekoaren puntu berdinekin gelditu da eta ez zaigu igo liguan atzeago zegoelako. Hobe zukeen Espainiako futbol tal-

deak Suarez eraman beharrean JUANTXEZ eraman balu Italiara...

* * *

Goardasol, auspo, zerraldo, ordenadore eta opari-gaiak, lehen eta beti

JUAN LARRAZ

Baina orain, 1932.urtean ireki zela kontutan harturik...

* * *

Berriz ere izango dugu aurten gure dantzari taldea dastatzeko aukera, dudarik pe, urteak joan urteak etorri, Leitzako festek eskeintzen diguten ikuskizunik ederrena. Eskerrik asko gazte horiei.

* * *

Azken urteotako modarekin jarraituz, ez geneukala Tiputik hasita Olaberriko pareraino behar haine txabola eta, orain Oialde aurrean garita eder bat jarri digu ONCEK.

Pour voir onze, edo gaurko modan, to see eleven...

* * *

Sanmigelek zirela eta Huitziko plaza enpo eginda zegoen gainezka. Irrintzi luze eta bizkorak, irrintzi motz baina gogorak, mizto bizi, zizkolatsu, zalapartatsu, guztietatik bazeuden lehiaketa hartan.

Halako batean leitzarra atera zen, metro larogitamabi, gazte sendo, bizkor, indartsua. Plaza bapatean mututu zen. Etzen eltxorik ere entzuten, ixiltasuna...

Harnasa hartu, ipurdia estutu, gorri-gorri egin eta: "pitt"... entzun ahal izan zuten... berak.

You are lucky, Michael!...

* * *

Eta jarri dizkiguten farolak, zer? Eleganteak, baietz? Meritua, meritua. Eta, oker ez bagaude, aurrerago argia emateko ere balioko omen dutela...

* * *

Tiburtzio saindua
Leitzako Patroia
moztu nire atzetik
heldu den pitoia.

Gora Tiburtzio
Iño!
Gora Tiburtzio
Iño!
Gora Tiburtzio
Gora, koiño!

Esaera zaharrak

- Ardoa Nafarroako bikarioa.
- Azpirotz, elurra denean haizea hotz; eguzkia denean, be-ro; Azpirotzarrak beti ero.
- Bakoitzari berea, Ezkurako legea.
- Egia eta fedea Ezkurako legea.
- Herriz aldatzea, zaharren hiltzea.
- Pertsona zaharra leku aldatzea; arbol zaharra lekuz aldatzea bezala da.
- Gorriti, ardoa darik begiti; ardozopa sudurreti.
- Zerain, hanka jaso eta buztanari eragin.
- Abendua jai huts eta gau huts.
- Asteak bere ostirala.
- Baietz bihar dela maietz; etzi pazkoa jo eta hautsiko dit kaskoa.
- Bihar ez bada, gazik, gozoak.
- Gaur jai, bihar jai, etzi putz usai.
- Gaur hotza, bihar izotza, etzi elurra, banuen beldurra.
- Hil artean bizi.
- Lehengo lepotik burua.
- Lehenbizi jan, gero lan.
- Otsaila katu hila.
- urteak galendu, ajeak azaldu.
- Zaharrera lagunarekin etortzen da.
- Alferrak beti beta.
- Umerik ez duenak, ume minik ez.
- Lehenbizikoan barka, bigarreanean urka.
- Handiak ttkia ahaztarazi.
- Senar duenak jaun badu.
- Lau, lau, lau: andreak galdu nau.
- Emaztearen indarra, negarra.
- Emazteak par ahal duenean, negar nahi duenean.
- Bestearen ama ona baino nor bere txarra hobea.
- Amorezko ezkontza, dolorezko bizitza.
- Alaba gaizki ezkondua etxera laster.
- Etxe txarrak lehor txarra.
- Ikusi nahi ez den hura maiz begietara.
- Nahi ez dena beti begien aurrean.
- Etxean zahar, kanpoan gazte.
- Larraren umea, masusta.
- Galtza zaharrari, adaki zaharra.
- Jakiteak ez du ogirik jaten.
- Etorri urte, ero urte.
- Ibiltari gauean, logale goizean.
- Norberak ez du bera makarrik ikusten.
- Zaldizkorik ez eta oinezkorik nahi ez.
- Urrutiko eltzea urrez, hara orduko lurrez.
- Txanpon txarra etxera bihur.
- Izenak ez du egiten izana.
- Nor da zure etsaia? Nere ofiziokoa.
- Hitzak ederrak eta putzak minak.
- Zaharrak eskapurik ez; gazteak ordu segururik ez.
- Egun bateko negarra, bizi guziko pakea.
- Dakienik ez da jaiotzen.
- Diruak malkarrak zelaitzen ditu.
- Ez jan ez lan.
- Beharra irakasle on.
- Bost zotz zuri neri.
- Ematea on, hartzea hobe.

ROSA SESTORAIN



Tolatxenetarren musika zaletasuna: (Kantari, organista, atabalari, ziztulari)

Gizaldi honetako tolatxenetarrak, hamaika senide ziren. Bi neska oso gazterik hilko zirenak, eta beste bederatziti mutiletatik, bost gaur bizi direnak: *Angel*, senide guzitan boskarrrena, Legazpin bizi dena; *Enrike* seigarrena, gerrakoan alde-ginda, Iparraldeko Ezpeletan bizi dena; zazpigarrena, *Joxemari* apezka, Iruñeko Katedralean kanonigo dagoena; hamaikagarrena *Fermin* atabalari, eta, hamaikagarrena eta gaztrena *Kandido*, gaur oraindik oinordekotzaz *Tolatxenen* bizi dena.

Aita, *Joan Batixte Azpiroz Baraibar*, Frasku Erreroan anai zena, zurgina zuen, oraindik mutiko koxkorrak zirela hilko zitzaiena. Ta, ama, *Juana Fraxka Zabaleta Aranibar*. Honen ama, *Kandido* eta hauen amona, beratarra omen zen; eta aita *Joan Batixte* gazterik hiltzean, ama *Joana Fraxkak* bakar bakarrik aterako zuen familia aurrera, mixeri gorrik ikusiz.

Senide sail haundi hartatik, musika zaletasun aparta ume umetatik ekarriko zutenak, *Klaudio*, *Joxemari*, *Fermin* eta *Kandido* izanen ziren. *Klaudio* atabalari bikain hura gazterik hilko zen, zoritxarrez, baina, beste hiru anaiak gure artean gelditzen zaizkigu. Beraz, alperrikako luzamendutan ibili ga-be, berei ematen diet hitza:

Tolatxeneko Joxemari apezak esanak:

"Olazarandarrak izandu zien Leitzeko musike ta txistulari talde berri eta gazte baten sortzaillek, orain dela irurogeitabi urte gutxi gorabera. Ordun emen organixte eondue zenak *Ramon Olazaran* zun izena. Orrek bazun beste anai bet fraile, *Lekarotzen* eotten zena, *Hilario Olazaran*, eta uste dot, lenbiziko txistu metodoa onek iñe dela. Onek bazun beste anai bet ere, *Lekarotzen* zegoana, gaztegoa; nik ori oso gutxi ezautu nun, eta *Españiko gerra* etorri zenen, ez dakit nondik nora, bik Ameriketara eraman zittuzten. Ta gaztrena, Ameriketara yoanda, oso abudo il zen. Beño, *Hilario ori*, an urte askoan eondute, onea etorri zenen, sekuleko arrera eñ zioan, pesta izugarrie. Gero, andik etorri, te, Iruñen eondu zen. Ta, uste et, Iruñen bertan il zela.

Olazarandar oritan nik ezautu nun arrega bat ere; noizen beñ etortzen zen Leitzera, bere anaiekin eun betzuk pasatzer, ta, orren goraberarik geio ez dakitt. Gero, beste anaie, *Karmelo* izenekoa, oraindik Iruñen bizi dena, laroita geio urte izaan ditto, beti gizon ttikie izandu de, beño, oaiñ ttikigoa dao, dena billue; nik kalen frankotan ekuste et; xarraka xarraka, kapazo aundi bet artute mandatuk ittenda bera ibiltzen da, bizar aundi batekinde, eta, nik ekusten dotenen beti yoaten naiz diosala ittea, ta, pozik eotten da nerekin izketan. Ta, au zen *Naparroan* izandu zien aurreneko mendigoizaleta-koa. Oaiñ mendizale elkarte asko die Iruñen, beño, ordun bakarra zen, *Club Deportivo Navarra*, eta, elkarte ontako buruzagie eo zerbatte ola zen, mendizale izuarrie biñipiñ.


Don Ramon apaza berriz, onea etorri zen organixte; beño ez koajutore. Ordun emengo koajutorek zien: *Don Manuel Erdozain* eta *Don Inazio Lizarraga*. Don Manuel Erdozain zen, oaiñgo Don Domingo organixte onen osaba, eta, elkarrekin bizitzen zien. Nik Don Domingo ori, beti osaba Don Manuelen etxen ezautu nun. Don Ramon ori etorri zen, ez dakitt seguru noiz, beño, ogeita zazpi eo zortzin eo ola etorri izaan zen. Ta, bereala bildu zittun mutiko sail bet, eta, oien arten geunden, *ni*, *Anjel Alduntziñ*, *Bernabe*, *Yoandeiko*, *Fermin gerran ill zena*, *Joxe Miel Sorokoa*, *Martxeneko Joxe*,

Ramon orrekin musike pixkoat ikasten, ta, gero musike ikasiala elizen kantatzen. Guk ordun kasik urte guzie elizen pasatzen giñun: entierro guzik, anibertsario guzik, nobenak; ordun urten amar amabi nobena izaten zien; ta ola, urte guzie elizen pasatzen giñun, kantue entsaiatu ta kantue kanta-tu.

Ta eun beten asi giñen txistue ikasten Don Ramon onekin: *Angel Alduntziñ*, *Bernabe* ta *ni*. Ta, talde ortako lenbiziko danbor yotzallee *Joxe Martxeneko* izandu zen, oaiñgo *Roberto Sukuntza* onen anale, eta, *Joxe* au noiz arte izandu zen danborlarie ezta-kitt, beño, gauz bet dakit, eta oaintxe esanet:

Eun beten yoan giñen beti bezela entsaiatzea, eta, eun artan bakaziotan etorrie edo, an zen Don Ramon onen anaie *Don Hilario Olazaran* musikalarie famatue, ta txistularie gañea. gu lenaotik ezagutzen giñuzen, beño, eun artan danborra yotzen gure *Klaudio* zena zen, gu baño bi urtez gaztegoa, eta, danborra ez dakit nik non ikasi izaan zun ark, *Tolatxenen* danborrik etzen ordun, de. Txistue nun nik, txistu txurie gañea, txuri oitakoa, ta, *Joxe Mari zena* *Amerikanoak* erregalo in zien neri txistu beltza. Ikaragarri gogorra zen gañea txistue, ta, etzetzien bate gustatzen; akaso oaiñ gaztea nitzelako, eo bear bezelako indarrak ez nulako, beño, gogorra itten zetziene oso! *Hilario Olazaran orrek gure Klaudio ori ekusi zun danborra yotzen, ta, arrittute geldittu zen!* Mutiko ttikittikie, ta bera baño aundigoko tanborra yotzen: *tarran, tarrapatatan, tarrapatatan...* konpasa earki eamatten zun, da, *Hilario ori* arritturik geldittu zen. Gure txistu ikasteko asiera olaxe izandu zen.

Gero asi giñen, *Ebarixto* zenakin batera yotzen. *Ebarixto* yotzen zittun pieza batzuke ikasi giñuzen, ta, elkarrekin yotzen giñuzen iandetan arkupen; ez noski oaiñ bezela arkupen barrenen; arkupe eskinetik plazara beide. Eta, yotzen giñun *Erarixto* orrekin, beño, guke bagiñun gure repertorioa, ta, txandatuz aitzen giñen. Ori iandero yakiñe. Gero, baakitt guk bakarrik ingurutxo yotzen giñula. Beiñ baño geiaotan karrapen ingurutxo dantzaten zen, euri itten zunen da, eguraldi txarrakin de, ta, *akordatzen naiz beiñ baño geiotan ingurutxo yoik Angelek, Bernabek eta nik; eta ordun, Klaudio izaten giñun danbor yotzallea.*



Leitzeko dantzari txiki ta txistulari taldea, Iruñeko zezenplazan, 1930.garren urteko San Fermin Txikitan. Txistularik, ezkerretik eskuñera: Tolatxeneko Joxe Mari, Bernabe ta Angel zena; Danbor yotzallea berriz, Tolatxeneko Klaudio zena.

Leitzen aurreneko ezpatadantzarik *Españiko* gerraurren sortu zien; bi talde izaan zien noski; *gure anai Angel eta Luis Erbiti* zien dantzari orietakoak. Ta, gue *Fermin* amaika urte zittula yoan izandu zen *Bilbaora* ezpatadantzari talde orrekin; ordun txistularik: *gure Klaudio ta Etxeberriko Periko*

Dantzari talde oik, naitaiez txistue bearda! ordun asi zien txistue ikasten gue Klaudio eta Etxeberriko Periko, gue lengusu propioa; gero Periko ori gerran ill zen, eta, uste et, gerran illdeko azkeneko leitzarri ori izandu zela gañea. Dena den, nik eakusten nioan oiri biri txistue bakaziotan seminarioetik etxera etortzen nitzenen; ni orduko ongi ikasie baintzen, da, ni aitzen nitzen gue Klaudiori te Periko lengusuri txistu eakusten.

Ola, gerra bittarte ortan gure buru Don Ramon ori izandu zen. Gañea, Don Ramon au zen, euskaltzale amorratue; ta, ordun emen apez zegoan Don Inazio Lizarraga orire zen, euskaltzale amorratue, ta ordun, naiz *Primo de Riveran* garaia izan, euskal pesta batzuk itten zien, ta oroitzen naiz beñ nola yoan giñen Bergarako euskal pestetara. Ori izaan zen 1928n edo olak, ta, oroitzen naiz gañea, ze pasatu zetziun. Gu, txistularik, kalez kale genbiltzen, biribilketa bat yo, bestea yo, ta, neonek esan nion olaxe Angeli, oroitzen naiz ederki:

— *Angel, Leitzeko pasakalle oitako bat yo bear diu?*

— *Goazen ba, yotzea!*

Ta, asi giñen, *laran larari larare, larin lari lire...* Ta, etortzen zaiu settun laxterka dantzari txiki oien buru itten zuna, *Ireneo* errenteriarra, eta!

— *Ixill zaitezte mutikoak! Ez olakorik jo!* —esan zigun gizonak, estu eta larri.

Gu, ustez Leitzeko pasakallea yotzen asi! beño, *oriamendi* jzaki! karlisten martxa! ta guk ez yakinkio! guk Ebarixtori ikasiteko soñue, ustez Leitzekoa zelakoan!...

Beste beñ, Leitzera etorri zen, *Primo de Rivera Generala*; eztaziora trenen etorri zen, ta, estaziora atera zen erri guzie, ayuntamentue ta denak, elegante demonio yantzitze! ta, orduko txistularik zien, *Ebarixto ta Pastaiñ*. Ta bi txistulari zar orik eun artane yo zuen, *oriamendi* ori, ta errepublikanoan martxa *Himno de Riego* ere bai, *larin larari lalero, larin lalari lalero...* Au yoaz eztazioa bera nola etorri giñen oroitzen naiz ederki! Nik ordun sei zazpi bet urte izaan nittun, de, nik ez nekin oaindik txistue yotzen, beño, ortaz oroitzen naiz ederki, beño, ederki e!

Nere ustez, aide ok eta beste batzuk, emen trenbide au itten ibilli zen yenderi ikasitekoak zien. Kanpotar asko ibilli baitzen ba Plazaola trenbiden lanen: asturianoak ziela, gallegoak ziela, soria ta kastilla alde ortakoak ziela, emen yende asko ibilli zen. Ta ordun, trenasi zenen emen geldittutekoak die: *Agustin Bigera ta on atte; Adrian Muñoz, Matilde ta yostun on atte; Rafael Soria, Pello Labetxekean andren atte; Pablo Ranz, Basilio pelukeroan atte; beste batzuk "Xakona" esaten zioanak, Moises De Francisco zuen atte; ta beste bat Armendariz, ta ola asko zien emen geldittuk. Ta seuru nao kanpotar oiri ikasik zittuela Ebarixtok eta Pastaiñek euskaldunak etzien kanpotar aide orik.*

Orik denak errepublike baño lenaoko kontuk die. Akordatzen naiz nola ibiltzen giñen erritan txistue yotzen urte atan: Aison pestetan, iru eunetan e! Arruizen ere bai, Ezku-

rren ere bai. Ta oaintxe akordatzen naizela, gure atte zena il zen eunen ere, txistue yotzen nitzen ni Iruñen. Aste bete edo ola irao nun nik ordun Iruñeko dantzari ttiki talde berri bate-ri txistue yotzen. Nek txistue yoaz entsaiatzan zuen dantzari ok Leitzeko dantzari txiki-kin batera artu zuen parte *Leon Navarro* esaten tzioan *Irigoyen* pillotari famaturi *Euskal Jai* frontonen eiñ zitziyon omenaldin. Ta, gogoan dauket beti: omenaldiko pestakizun ori bukatu giñunen, Don Ramonek artu niñun besotik, eta ez bat eta ez beste, automobil batera eram- man niñun, ta bik Leitzea abittu giñen. Ni arrittute nengoan! bakarrik berex artute zeatik ote nakarren? Ta biden, Leitzera beño len, esan zien, gure atte il tzela! Etzat sekulan aztuko ori!

Beste eun beten Eatsunen ere izandu giñen. *Goan dauket Eatsunen boladue nola ematten ziguen*. Mai bet yartzen ziguen, olako mai kozkor bat, eta, gu aren gañen zutik aitzen giñen txistue yotzen. Gero txokolatea ekartzen ziguen boladukin, txokolatea ta baso aundi bet ur, boladukin; aurrek baigiñen gu oaindik. Ordun, Angel, Bernabe eta ni giñen txistukin, eta, gure Klaudio danbor yotzalle. Goan dauket ederki: nere azkeneko txistu yoaldie Eatsungo pestetan izandu zen, ta, andik illabete beño len sartu nitzen seminarioan, 1930 Urrin bien edo iruen. Auxe da nik dakittena, gerraurreko gure musike konturi buruz".

Azkenean, berak ezku papereratutako partitura hauxe kantatu zidan Joxemari, bere garaian sokadantzan jotzen zela esanez, eta orain ez dela jotzen. Eta dantzari buruzko bere oarkizun batzuk egin zizkidan.

1990.eko Maiatzaren 27ko bazkalondoan egondu nintzen hizketan bi anaiekin, Joxemari apaiza eta Kandido atabaie-roarekin, *Tolaxeneko sukaldean*, eta Joxemari gerraurreko kontuak kontatu ondoren, berehala, Kandidok artu zuen hitza gerrondoreko kontutara igarotakoan, niri hika itzegiñez, eta anaia apezari zuka.

Kandido toaltxenekoak esandakoak:

Gero, *Joxe Martxenekoa* gerran ill, *Periko Etxeberrikoa* ere bai, ta, *Bernabek* ere 1933n utzi zien txistu yotzetik, ta, ordun yotzen zikean, gure *Klaudio* zenak atabala ta *Angelek* txistue, ta, ordun asi uen Joxe albienteare txistu yotzen. Gero, gerra iraoa belaxe, andik urte batzuta, ezpatadantza talde berri bet asi uen, ta ordun Angelek etzien ezpatadantzik yo nai izaten, ta, Angelen orde z gure Klaudio asi uen txistue yotzen.

Beño, gerra bukatute, ezpatadantza asi bitterte, *Klaudio* ta *Fermiñ* ta batzuten ni, aitzen giñuzen, txandaka, zeatik ordun beti izaten baigiñun zerbate, eo batzutan Klaudio kanpoan zela, urrena Fermiñ Legazpire yoana zela,... Ta, akordatzen nak, nik nola yotzen nun atabala, Klaudio falta izaten zenetan. Nire asi baintzen atabala yotzen oso gazteik, amabi amairu urteako eo zerbate ola. Gerrondoan, biñipiñ, Klaudio, Fermiñ da ni ibilli giñuzen atabala yotzen, batzuten





Españiko gerrondoan Leitzen sortu zen lenbiziko ezpatadantzari taldea. Eskuñeko illadan lenbizikoa, Kandido.

bat, bestetan bestea, ta ola; Klaudio gu beño geixean ibilli uen, beño, igoal dik, iru anaiek biñipiñ. Ta Angel zena txistukin, ta, *Joxe albientea* batzutan.

Andik urte batzuta, 1947 garren urten ezpatadantza asi uen berriz. *Aurrerak* antolatu zien, ta, *Luis Erbiti* izandu uen dantza asunto ure dena moittu zuna; ordun, *Andres Irisarri*, Angel Anduntziñen koñadoa uen *Aurrerako presidente*, ta, orik denak launek ittuen, ta, usteit gañea Angel asarretu eo zerbatte in tzela ordune, Luisekin eo, *Irisarrikin* eo... Biñipiñ, bi talde atea giñuzen. Ta, ordun ni talde oitako baten dantzari asi nitzenen, asi ittuen Klaudio txistue yotzen ta Fermiñ atabala. Nik emeretzin urte netien ordun, ta, gero ni soldadu yoan niñuen, ta, soldauske inde, Gipuzkora lanea, ta, ordune Klaudiok eta Fermiñek settu zikean ezpatadantza yotzen. Beño, karrapen yotzen beti bezela seitzen zien Angelek, naiz ezpatadantzik ez yo.

Gero, gue anaie Klaudio il zenen, ni etxera etorri niñuen, Gipuzkoan *Idiazabalen basoan* ai nitzen lekutik. Ta, ordun ni asi niñuen atabala yotzen plazan yayero Angelekin ta Joxe albientekin; ta, ezpatadantza berriz Fermiñekin: ark txistue ta nik atala. Ezpatadantzakoan Angeleik ez uen arrimeturere! Pestatane, ingurutxoia yoko zien, beño ezpatadantzik sekulen ez!

Ola bos sei urtetan eo ibilli izaan giñuzen. Gero, nik ez baita bat eo izandu nien, ta Leitzeko fabrikan asi niñuen lanen, da, utzi in nien atabala. *Geo, Exkubitar orik asi ittuen ezpatadantza yotzen*, ta atabalerok etzekean, ta, gure Fermiñei esan tzeioan ea atabala yoko al tzun, ta baietz, yoko zula, ta ordun asi uen *Exkubitar okin batea Angel*, ta ordun ikasi zien ezpatadantza yotzen Angelek. Eskubitarrok, estudioan da, ibiltze ittuen, ta, ordun Angelek eta gue anaiek yotzen zikean askotan. Ta, geoztik, *oetamar urteotan eo geiagotan Fermiñek yo izandu dik atabala*; ola, tarten baten uts itten bado eo, ordun nik, beño, bestela beti berak".

Joxemari apezak bezalaxe, Kandidok ere egin zidan azkeanean, dantzari buruzko bere oarkizuna:

"Gero, beste gauz bet, askotan esaten tzeioat Exkubiri ta orire: Ingurutxoia dantzatzekoan, belantzikoa ittekoan, askotan mutille neskan aurea allatu beño len asten zatea: *pi, pi, pipi... presakei itte zue! Askoze ohea dok neska mutillen esperoan eottea, ola yotzea beño! Ortan ikarri gaizki ittezue! Ori despaziora in beaik! Sokadantza lasai bukatu, te, mutille neskan paren yartzen denen, lasai, patxadan, abisoa eman*

Fermiñek kontatuteko pasadizoak

"Gure Klaudio zena ta Angel beti asarre, baño beti ainkide izate ittuen, ta, beiñ, Azpirotzea pestara ziztela, ordun mendiz yoaten ittuen ba, Gorritin barrena, ta, ze in tzaio Angeleri? ttunttune yoan malda guzik bera Araitz aldeko mendi oitakon baten, ta gure Klaudio zenak lertu bear tzula parrez!

Ala, ure pasatu dok, eta urrango urten berrize, Azpirotzeko pestetan diana yotzen zebiltzela, arrin baten estropozo inde, ze in traio gue Klaudiori?, gerrickotik atabala atera, ta, poteka beiko esiaño yoan, ta, yakiñe, Angelek lertu bear zula parrez! Ta ordun, gue Klaudio orrek ala esan omen tzien:

— *Ni ez gaiao ekarri Leitze beño erri ttikioata pestara el, emen etzittekek zutik ibillite!*

"Beste baten, berriz, Kandido ta Angel omen ittuen Azpirizko pestatara yoan; eta pestak bukatute Leitzera etortzeko Uitziko kaxetara atera bear zuela autobusera; ta, abitto dittok, eta Uitzire non aterako dien Gorritire ez dittok ba atera! Bertan gosaldu omen tzikean erarki! ta, Guratz Mendin barrena etorri omen ittuen gero. Ordun dena mendiz ibiltzen baitzen Ezkurrerare yoan izando gattok mendiz, beiñ beño geiagotan. Ta, gure apezarire aittu izandu zeioat, beiñ Lizartzara nola yoan izandu zien beren txistuk eta tanborrak bizkarren artute, oainduk mutikozkorak ziela".

Apoak: piiit!, eta Angelek: piit!...

"Beste baten, Azpirotzea pesta yoan giñuzen Angel da bik. Ta, geren musike lanak inde, gaben lota yoan gattok, eta, zapo bat, *piit, piit, piit...* ez ixiltzen kritotatik e! Ta, Angelek amorrazitte, esan tzien olaxe:

— *Redios, ixilduko aiz bai oaingoan! nazkazikoat eta!*

Ta, obetik yeki, txistue artu, ta, leiotik bera anak kapora zittula yarri, kantzontzillu utsen eseritte, ta, apoak: *pit*, ta Angelek: *pit*; apoak: *pit* berrize, ta Angelek: *pit*, ta olaxe kriston denboatan, ta, gero irulau apo asi zetzizkioan alde banatatik, batek: *pit*, ta bestek: *pit*, ta, yakiñe, azkenen nazkatute obero surtu uen! Nek ak parrak! Lertu beanula parrez!

Ure pasa dok ala, ta, urrango goizen yekite, oiñala dena pibez betea, ta, Angel orrek:

Ta, artzeik eta, goitik bera etzetik ba botatzen oiñalak eta denak! Ta, beiko beserrikoa orduntxe aikio astoa deskargatzen, ta potea in tzien tellatun gañen, ta, *danga!* astoan gañea oiñala”.

“Beste eun beten, Kandido ta Angel pestata yoanak it-tuen Arribera, ta Kandikok laxter apustue eiñ beste batekin. Galtzak eta alkandora kendu omen zetien, ta kontzontzillu utsen. Ta, bittarten ze in dio Angelek: arropak gorde! Oandik illune, goizaldera izane uen ori, ta, eune argittu omen tzien, ta diana yo bear! ta arropik ez! ta ez esaten zeñek gorde zittun! Antxe ibilli omen uen: buzo ttiki urdiñ oitako bat billatu omen zien zentralen, ta, aretxekin aurdiarte guzin! Gero eguerdin eman omen zezkioan bere arropak. Amar durokoa omen tzien galtzan poltsan, ta, ark kezkatzen omen zien, bestela, bere buzo uriñekin lasai gizona e!”.

Zerri txikiatzallen bandoa:

“Emen leno goarda bauen urbitakoa, Martin; gero ill iñ uen gizajoa; ta, gure Klaudio asi zetzioan atabala pixkoak eakusten bandoa yotzeko, ta, atabala zakun sartute yoate it-tuen Yoandeiko tunelea, tanborra yotzen ikastea. Azkeneako zoezer ikasi zien, ta, eun beten bandoa yo zien; aurrena eus-keaz:

— *Garmendia zerri txikiatzallea etorriko dela asteazken eduerdin, ta nai dittunak, ateatzeko zerrikumek.*

Ta gero erdeaz:

— *El miércoles que viene, que vendrá Garmendia el capador, y el que quiere que se presente”.*

Aison goizeko irutan kulunpuioan Angel ta Ferriñ:

Beste bate, yoan giñuzen urtero bezela San Pedrotan Aisora, ta, lenbiziko in tzuen soziedadea nola da? ba, an badi-tok kulunpio batzuk, ta, goizeko irutan eo, apal ondoren kristonak eanda berotuxe gattok bik, ta antxe ibilli giñuzen kulunpio atan yarrite, Angel da bik, ara ta onea, aize artzen, goizeko irutan! Jo, ure gozotasune, gora ta bera, aize fresko freskoa artuz, te, alako baten aisoar batek:

Beno, yoan bearko diu ba oaintxe?

Bale, ba, yoanen gattok!

Ta, kotxen artute ekarri geunden etxera, ta, nik kristona armatu nien emen. Nolabatte aten giltze sartzeko, tanborra lurren uzten asi, te, eskalleak bera yoan! din dan, din dan, din dan, kriston zalapartan goittik bera! goizeko iruterdik labek alde! Ak soñuk! Etxe guzie esnazi nien azkeneako!”

Angel astoan gañen elizera Eatsunen:

“Beste beiñ belaune elbarritu zien berriz Angelek, astoan gañen zebilleta. Ordun Angel da Kandido ittuen Eatsun pestatan, ta, gaupasa inde diana yo dikea, ta, baakik ze tipoa zen Angel ori, ta, ze in do, an zebillen asto bat artute, aren gañen txistu yoaz asi erri guzittik bueltaka! Emen karnabale-tan bezela an etxez etxe ibiltzen baitzen ba puske biltzen, ta, Angel ori asto gañen yarrite, ta Kandido atzetik, atabala yoaz, ibilli omen ittuen goiz guzie.

Gero, mezakoan Angelek zea in nai omen zien, astoa elizea eaman, ta, eskalleak gora iotzen asi dok eta, an aztarri-ke zebiltzela, asto alu ark burue bajatu dik eta, lepagañetik bera lurrea Angel, bere txistu te ttuntun de guzi! Ta, belaunekin eskallean koska yo, ta belauen miñ artu! Geo, mezako denboran, eliz atarin lotute utzi omen zien astoa, ta, an inguru-ko artadin batetik artaberdea eman omen tzeion astoari me-zako denboako, tak, artaberdek artu zittulako, ango emakumen bat errixten asi! ta:

Redios! errixtan asten iza gañea! ez daukezo nere belau-neko miñe! —esan omen txeioan Angelek emakume orreri.

Ta berrize mezondoan garri dok asto geñan te ala ibilli eman uen bazkalordue arte. Geo, pesta guzik alaxe, *agoanta ta agoanta*, urgunke pasa omen zetien, beño gero, peston-dorene belaune elbarritute eondue uen, denbora frankoan”.

Astoari periodikoa leitzen erakusten:

“Beeste baten, billu omen ittuen tabernan baten: Joxakin Boxikana, Angel ta gure Kandido. Ta Kandidok esan omen tzeioan Angeleri:

— *ik txistue yotzen eakutsi bear ioke oneri, Joxakiñenga-tik.*

Ta Angelek:

— *Onei txistue yotzen eakutsi? Naigo it onei txistue yot-zen eakutsi beño, gure astoai periodikoa leizen eakutsi!*

Kandido ta Angel aserretu Eatsunen:

“Beste beiñ, Eatsungo pestetan, Angel da Kandido asarre-tu in ittuen. Erriko laun koadrille bat alkaten etxera yoan omen ittuen, noski, kafea artzera, ta Kandidore okin yoan. Beño, angel siestan geldittu omen uen. Ta, bestek oañik al-katen etxen zeudela, Angel ori txistue yotzen asi omen uen, ordue beño pixkoat lentxeo; ta, erlojuri beidetu zeik Kandi-dok eta: *“oaiñok ez dok ba garaie!”*. Ta, Angelei adarra yot-zeatik pixkoat beanduxeo yoan.

Andik ratotxo batea yoan dok Kandido bere danborrakin, ta: *ea zeatik asi zen ordue beño len?* errixten asi omen zet-zioan Angeleri, ta, baita Angele! Kristona ez dikea ba armatu bik, yende guzin aurren! Ta, artan geldittu omen uen kon-tue. Geo, pestak bukatu zienen; bik kotxe banatan etorri omen ittuen Leitzea: Kandido letxeroanen, Miel Hernandore-na zenakin, ta, Angel aisoarren!

Txistu yotzen izanduteko erri betzuk:

“Beiñ, Ezkurrea yoan giñuzen, ingurutxoakin ta Ezpata-dantzakin, ta, ni txistukin ta Kandido atabalakin. Beña, or-dun oso gaizki intzien Luis Erbiik; ark angelei esan balio, in-gurutxoa ta ezpatadantza erki yoko genetien bik, ta, primeran ateako uen dena, beño, ni bakarrik yoan niñuen; ta, ezpatadantza ongi nekien, beño, ingurutxoa duden, ta, gaizki ibilli giñuzen.”

Beste beiñ, allatu izando gattok Kandido ta ni *Errazkiñen, mezaberri baten, ni txistukin ta Kandido atabalakin, ta, Leit-zetik kantatzea yoan ittuen ordun: Joxemari Astaría* ori Bernaben atte, Nazario Lizarza, *Heberiano Sukuntza*, ta olako betzuk. Ta eun artatxa ezautu zien Joxemari Astaría orrek oain andrea dun ori.



3.º Errazkiñen meza berrie. Tolatxeneko Ferriñ txistukin, ta Kandido atabalakin, 1957.garren urten.

"Guk olako istori asko zeti. Pestatan asten giñuzen: lenbizi Azpirozti, abuztun iruen; Abuztun seien, berriz, Errazkiñen asten ittuen, ta, bate etxera gabe, ara yoaten giñuzen zuzenen; gero Errazkindik etortzen giñuzen, ta, Leitzako pestak seittun; ta, emengoak pasatute Ezkurrera. Amabost eun orik elkarren segidoan itten genetien. Gero Eatsungo pesteta yoaten giñuzen; ta, andik urrena Arribera. Beño, Samieletan, iru urte segidoatan, izandu giñuzen, Kandido ta ni Barabarren, ta, Angel ta Klaudio Arriben. Nik ordun txistue ongi yotzen bainun! Gero, ezpatadantzarikin askotan ibillie nak ni txistue yotzen. Ixtori guzik kontatuko banittu nik! jesus! liburu aundi bet betetzeko aña bai!"

1990.eko Maiatzaren 29an hizketatu nintzen Ferminekin, eta, beste anaiak bezalaxe, bere azkeneko oharra egin nai izandu zun Ferminék ere Leitzako ezpatadantzari buruz:

"Gau bet eantsiko nitek: nere idurieko, oaingo ezpatadantzari ordukoak beño obeki dantzatzien die. Ordun lanen ler inde etortze ittuen denak, eun guzie lanen aittute, ta, ez baitzuen oaingo ok bezelako biuñtasunik eta motiboik ere, anka ongi goatzeko! Entsaioak alondigan itten genetien, ta, antxe moldatzen giñuzen al giñun bezela, bakoitzek peza bana yarrite, diru pixkoak billu, te, pinta pare bat ardo ekarri, te, artatik trago batzuk iñez, antxe... Igoal iru te lau etsaio ta itten genetien! zorrotz aski bai! oaiñ ainbeste berrike-ta gabe!"

Beño, alare, oaingoak obeki dantzatzien dikea. Oaiñ gauz bet itten dok gaizki: txakarrankoan bukaera. Ikaragarri mantso itten dok bukaera ori. Ortan dantzari muiitu bear dikea; bestela, ikaragarri itsuski ematten dik. Gure garaian askoze abudogo itten uen bukaera ori".

Esanak esan, eta ez dira gutxi, oraindik gehixeago erantsi liteke musikari gizaldi oso baten oinordekotza osatzen duen aldi honi buruz, eta horretarako bidezko iruditu zait Tolatxenetarrena bakarra ezezik beste batzuren testigutza ere jasotzea, eta ahal den llaburren azaldurik, hara, besteak beste, Bernabe Azopirozek eta Pontxito Iuritia maisuak esan didatena:

Bernaberi artutakoak:

"Don Ramon Olazaran apaizak koru bet itteko asmoa artu zun. Yoan tzen eun baten eskolatara, ta, dozenan bat mutiko edo eraman giñuzen, ta solfeoa erakusten asi zen; ta, yakiñe, asko eraman bai, beño aitatik batzuk, gogoik ez entsaioata yoateko, ta beste batzuk oido aundike ez, ta, bat eta beste, geldittu giñen, ba, erditsuk eo olakon bat: dozer-nerdin bat, alde aldera.

Artatik asi zen dena, gure musike asunto guzie. Solfeoa ikasi giñun lenbizi, ta gero, nobenak eta, mezak eta, asko ikasi giñuzen. Noski, lendik ere bazen koru zarra. Ordun koru zarrekoak zien, ba: *Sekretario Zarra*, Antonio Lasarte Unaineko; bestea *Zortziko* esaten zioana; bestea, *Nazario Lizarza*, emengo erreka goarda izandue, Periko Lizarza ta on osaba, gero Ameriketa yon zena; ta gero, gure atte, *Fraxku Erreroa*; ta osaba *Joan, Etxeberri Goikoa* ere bai, ta baita *Martikoneko apeza, Joxe Miel Alkoz* ere, bakazioatan da, pestetan da, etortzen zenen; ta gero, orin arrimoan pixkoat aitzen zena, *Joxe Arribilaga albientea* zen. Orik zien gure aurreko koru zarrekoak. Ta, gero, Don Ramon ori guri erakusten asi zen da, orik nola baizuen lendik prestaera ona, ba, koru ona formatu zen, nik esatea ez dao ongi baño, bai, koru ona giñen gu ordun. Bazien tenorrek onak; gero, bazien, sekretarioan anai pare bat ere etortzen zienak, Lekarotzen fraile zeude-nak,

— Nere atten anaiek zien, *Padre Pedro*, ta *Padre Juan, Lasartetarrak, Unaienekoak denak* —eransten dio emazteak.

Ta ola, oso koru politte osatzen giñun ordun. Don Ramon onek asko balio zun eakusteko. Oso zelebrea zen. Beno, zelebrea esan nai dot, abildade aundie zula arakusten, ori ez bait du edozeinek izaten. Euskeraz etzekin, ta guke erdeaz gutxi oraindik gatztea zen berare, ta, batzutan yostetan an-

txe ibiltzen giñen mayen ingurun bueltaka, beño, zerbatte ikasi bear zenen, baita ikasire. Oaiñ bazien gure tarten ere, ikasteko errestasun aundie zuenak. Joxemari Totatxeneko apezak zun musikerako izuarrizko abildadea! Ark, beste guzik baño askoz abudogo artzen zittun gauz guzik.

ta, ordun giñen, ba: zarrentxuna, ori izanen tzen, Joxemari Totatxeneko, gero *Joxe Miel Zabaleta Martiertzene-koa, Soronta atte, orrek boza zun, beño potentzi arrigarrikoa zun!* orrek kantatzen zunen beste denak estaltzen giñuzen, berak bate fortzatu gabe, berez zun boza ikaragarriko indarrakoa! Gero, txistue ikasten ere pixkoat ibilli zena, *Yoandeko Fermiñ, Patxi Zabaleta ta on osaba, ta au, orduko apaiza Don Inazio Lizarragak illoba propioa zun*, ta, nai izate zun musike eakustea, ta, euki zun da! euki zun da! euki zun da!... Beño, bere borondaten kontra. Osaba apezak nai zun nolabatte illoba ori atea! beño, etzun deuseneko oidoik, etzun bate belarrik! Gero, Angel Alduntzin, ta ni, ta olako batzuk giñen. Baakizo, zarrak bazekizkien kanta oso ederrak, ta, guk ain arrimoan ikasi bear; belarrik asko, ta gero solfeotik pixkoat eta, olaxe.

— Zar orik zien —*sartzen zaio emaztea laguntzera*— Lekarotzen asko ikasik. Nere attere bost eo sei urtetan Lekarotzen eondue zen ttikittikiandik; ta, an musike asko ikasten omen tzuen. Ad udane etzien etortzen; yoanda, bost eo sei urte bertan inde etorri omen tzien etxera lenbiziko aldin. Ta, gure attek gerore settu zun, organiste izandu zen urte askoan emen, Leitzeko elizen; ta Tolosako korukoare izandu zen, *Mokora* zenakin kantatzen zun gure attek, ta, yoaten omen tzen *gañea, oñez aizu!* pentsazazo ze afizoa izaan zun! Mendiz yoaten omen tzen entsaiatzera, asten bi aldiz! Oaiñ *Martiñ Monteroana* nola yoaten da Orfeona refortzatzea ta? Ba, ola yoaten omen tzen gure attere Orfeona refortzatzea. Emengo korun bajutik kantatzen zun, beño, bere sabsoben tenorra izandue, ta, Lekarotzen *asta de contra alto* kantatzen omen zun! pentsazazo!


Gero, solfeoa dexente ikasi giñunen, —*segitzen du Bernabek*— noizen beiñ etortzen zen, Padre Hilario Olazaran ori, guri emen solfea erakusten zigun Romonen anaie zen ori, ta, arekin asi giñen lenbizi, ta, gero Ramon onganiste orrek ere guri erakusteko aña ikasi zun txistue, ta, gero, berakin ikasten giñun.

Akordatzen naiz, beiñ baten, ai giñen: Angel Alduntzin ori, Fermiñ Yoandelkoa, Joxemari Tolatxeneko ta ni, ta ez dauket gogoan besteik bazenik; biñipiñ an ai giñen entsaioan, ta, *Don Ramon orrek esan zion Joxemari Tolatxenekoari*, bazekin anai salle baziela, ta, esan zion olaxe, erdeaz el:

— *Zuk zeatik ez diozo esaten anaien bati danborra yotzen ikastea etortzeko! Ainbeste senidetatik ez al da bateon bat danborra yotzeko gogoia dunik?*

Ta, urrengo eunen bere anale Klaudiokin yoan zen Joxemari Tolatxeneko ori. Ta, settun ikasi zun! beño settun el! Ikaragarriko errestasuna zuen orik! Joxemari musikerako bezela, Klaudiok danborrerako. *Nik ez dot aittu inorre Klaudio bezela danborra yotzen!* Orrekin ez dot esan nai obeik etzela izaan! Beño ure ikaragarrie zen? Ta, Joxemari anaie igoal igoala igoala zen! Padre Hilario ark esaten tzun: *a primera vista* berak baño obeki yotzen zula! Atera pertitura bat sekulen ikusi gabe el ta aurreneko gistora Pedro Hilariok beziñ aixe yotzen zula. Errestasun izugarrie zun, musike leitze-ko bezalaxe yotzekore! Abildade ikaragarrie zuen orik! Klaudiok eta Joxemari.

"Gero dantzari taldek sortu zien. Onera etortzen zen era kustun bet, iandetan, Errenderitik, trenen etorri ta trenen yoan. Ta aren izenez ere gogoratzen naiz: *Ireneo* zun izena ta, gero iruñetik etortzen zenak berriz *Patxi Ripa*. Ta Irene arekin ikasitako dantzari zien, ba: *Haki* nola oaiñ ill da, be ori; bestea, *tomas Erbiti* zena; beste bat *Joxe Joakin Soroberrangoa*; gero, *Kristobal Etxabe* ta *Joxe Mujika*, oaingo Kaxetakoan anai zarrena, bik gerran ildekoak; eta, beste enaiz okardatzen orañ; nek, memoria makala baitut... Ta ga



Tolatxeneko Joxe Mari apeza, Luzaideko parrokin sartu zeneko oroi-garrie, 1952 garren urteko Otsailen. Erriko dantzari taldea, eta, Fermini eta Klaudio zena, Apezaren anaiek, txistulari ta danborlari.

ro, gu, erri frankotara yoan giñen dantzari okin da, txistue yotzea. Ni, Angel, ta Joxemari Tolatxeneko ori txistukin, ta, ez dakitt seuro seuro baño, Klaudio izaan giñun danborrakin. Gogoan dauket nola yoan giñen, beñ Bergarara, beste baten iruñera ere bai, ta beste baten *Andoaiñera* era bal.

— Bai, ordun saill aundie yoan ziñeten ez? gure anaiek eta esaten duenez? —*laguntzen dio andreak*— Don Inazio Lizarragakin eskolako umek prestatute, sekuleko kantak ikasite, dantzarik eta, txisturik eta...

— A bai, aittu izandu diot Mikela Astaitzakoari —*saltsatzen dut nik*— nola yoan izandu zien sekuleko leitzar pille Don Inazio Lizarraga buru zutela. *Manuel Larramendin omenaldikoan* zela uste dut, 1929an, "*El Imposible Vencido*" euskal gramatikaren liburu famatu ura argitaratu zueneko bigarren mendeurrena izan bear tzun.

— Bai, *Enciclopedia Dascan* azaltzen die orik denak! —*argitzen du Bernaben andrek berriz*.

— Ni gogoratzen naiz emendik saille aundie yoan giñela —*segitzen du Bernabek*— ta, in giñun idatzi bet, eta, emendik Naparroatik iñor gutxi izoan tzen ordun Andoiañen, ta, nik uste oso paper ona in giñula ordun leitzarrak. Akordatzen naiz bai, *Mikela Astaitzako* orire an tzela, ta, *Karmen Tellerikoa* ere bai, ta, len esan dugun *Joxe Joain sorobarrngo* orire bai; irrintzalari ona zen ori oso; ta ola, saille aundie giñen...

Ta ola, ibilli izandu giñen erri geiagotan ere. Baño, gero gerra etorri zen da, akabo! ordun bukatu zen dena. Ta, gero, gerrondoren berriz asi zienen nik ez nun geio yo izandu txistuik.

Pontxiton iritzia:

"Nere ustez, Leitzeko musikak *azpiroztarrekin* zer ikusi zuzena badula bistan zeok. Ikusten duk aspalditik datorren tradizioa dela *azpiroztarre*na. Oso belarri onekoak dittot, eta, gañea, musikarako yoera ikaragarrie izandu die. Ni Bernabekin ta Kandidokin ta *okin* eotten naizenen, beak esaten dikea beti, Olazarandarrak izandu ziela emengo musike muittu zuenak, beño, nik pentsatze it, aurreagotik billatu bear dela orren zañe.

Nik gure amari aittu izandu zeioat askotan, organo zarra nola yotzen zun Antonio Lasartek. Oso ona uen organo zarra, *Monturus*, frantsesa uen egillea, gero, *txatarrera* saldu bezene. Ta organo zar ure yotzen *1908an* asi omen uen Antonio Lasarte ori organiste bezela. Nik bezetit *Antonio Lasartek* ordun yotzen zittun partitura batzuk, eta, oso ongi yotzen izanen zien, zeatik partiture zallek baitie asko. Nik aittu izandu dit, *Perosin meza* kantatu izandu zula Antonio onek, beak yo ta beak kantatu.

Gero, *Eugenio Bebace* izandu uen organiste, Ramon Olazaran ori etorri arte. Dudik etzeok ordun, aurretik musike

landue zegoala. Frasku Azpirozek beak, Bernaben attek, tolatxenetarron osaba zenak, musike asko zekien. Nik geien bat beakin ikasi nien, pentsazak! Beak etzekien nik beakin ikasi nula, beño, ala ikasi nien; gero kontserbatorioan da ibilli niñuen, beño, geien geiena Fraxkukin ikasi nien nik. Bate espantuik gabe, beño, ixil ixilik, sarerra alatzekoan goratzen zien burue, ta *ttaka* ematen zien sarrera, ta korue lau aotsetara oso errex eamaten zien. Ta, berake oso ongi kantatzen zien.

Ta, orik denak orduko organo zar arkin aitzen ittuen musike yotzen ta kantatzen. Ta, pesteunetan yotzen omen zien berriz, *Donostiko Diputazioko buruzagi* izandutako *Izagirrek*, onea Zortzikon etxera etortzen zenen; nonbatt oin parientea eo etzekit zer izanen zen; betire, pestetan orrek yotzen omen zien Antonio Lasarten orde. Nik ori amari askotan aittu zeioat. Ikusteek ordun, or bazegoala Olazarandarron aurretik musikarako tradizioa. Ta. geio esaneit oaindik: Fraxku ta on aurreti, *banda* bate ba omen uen, pentsazak!

Gero, Ramon Olazaran ori Goizuta yoan uen, ta, andik bizikletan etortze uen, ta artatik pulmonie arrapatute ill uen. Gero beste organiste bat etorri uen, *Meliton Meoki*, ta ori oso denbora gutxi eondu uen. Gero ya, *Don Jaime* etorri uen. Ta, emen urteik geina organista eondu dena, Don Jaime izandu dok. Ta, Don Jaimeke, *tiple bezela beti Kandido Tolatxenekoa* euki zien. Ta, Kandido izan bear zien tiple boza aparta zuna! Nek enien aittu, beño, aittu zetik yenden komentarioak, ta ez eozinena, eta, tiple ikaragarrie izan bear zien, ta, asko iraun zuna gañea, tiple bezelja. Gero, aldatu zetzioan boza, ta, tenor bezela boza apartekoa dik. Beño, disziplina aldetik eta ez dela sekulan zaindu; beti, oso bere airera ibiltzea gustatzen zaioan oitakoa izandu dok, eta pena dok, beño, boza apartekoa zien orrek.

Ordun, ikusteek aski, Azpiroztarren musika zaletasuna aspaldikoa dela. Ik pentsazak: nik osatu nun lenbiziko korun, berroi laun giñuzen, ta, biarrengoan berroitamabi izatera allatu giñuzen, ta, lengoan kontuk ateatzen aittu niñuen: *emezortzi azpiroztar baziela*. Ortik kontuk atera, nola, berezko bat izandu duen beti! Belarrie, ta, ritmoa ematteko erretasun izugarrie izandu die beti. Klaudiok beak, oso ongi yotzen zien atabala. Ta, Kandido berare artixte ikarrie dok. Oaiñ, kostantzie Ferminiek bakarrik izandu dik. Ta, Fermini eskerrak iraun dik atabalak, zeatik urte askotan Angel ta Fermini bakarrik izandu dittok orreri eutsi dioanak".

Labur beharrez, zera gogoraziko nuke bukatzeko: ez ote du tolatxenetarren usario honek, eta bereziki Ferminen konstantzia honek, orain arte izan duen baino *omen* oberik merezi? Aidean uzten dut galdera, hortarako egon beharko luken ehiztariak aise harrapatuko duelakoan.

Plazaola zaharretik gaurko autobiarra

Ez, ez noakizue komunikabideetan hainbeste ekin zaion eztabaidan sartzera. Badira ni baino jaiagoak horretarako. Bakarrik komunikabide horiek, historian zehar, gure herrian eduki duten eragina jakinerazi nahi nuke. Baina gainetik, sasi-historia piskaren bat ukituz.

Gezurra dirudi, nahiz eta hainbat urte pasa izan Plazaola gugandik baztertu zenetik, zenbat gogoratzen den gure herri hau tren zahar hartaz. Hortik kontuak atera, trenak herri mailan izan zuen garrantziaz:

Hasiera batean, Plazaola meatzeetatik lortzen zen burdina trasportatzeko eraiki zen, 1902ko Irailaren 19an zabaldu baimenaren bidez, Plazaolatik Andoainerainoko trenbidea. Gero Iruñerantz luzatu zuten eta azkenik Andoaindik Donostiaraino. 1914eko urtarrilaren 19an inauguratu zen, Huitziko geltokian, ofizialki, komunikabide hau. Fray Jose Lopez Mendoza, Iruñeko gotzaiak eman zion beeinkapena, baina han bildu ziren ere Leitzako abadea, Jose Koakin tirapu, Huitziko apaizak, etab.

Horrela izan ziren gauzak beren ofizialtasunean. Baina herri mailana jeisten bagara, guzti hori paper bustia bihurtzen zaigu. Hasteko, aitzaki horretan Leitzak jende arrotzez bete zitzaun. Nahiko iskanbila sortu zuen guzti honek leitzarren artean. Askari dugu oraindik bizi zaizkigun agureengana jotzea. Beraiek adieraziko digute, inork baino errealkiago haize berri horrek sortutako zurrunbiloa. Zenbat, borroka, iskanbila, lapurte, etab. Heriotzaren bat ere ez zen faltako: "Mandé dar sepultura a un cadáver de varón desconocido... muerto a puñaladas"... dio lehen aipatutako abadeak, 1902ko Ekainaren 2an. Ez zen faltatu ere bere burua hil zuenik, Pedro Dorronsorok 1907an bezela.

Kalte asko ekarri zion bai lasai bizi zen herriari sorginkeria zerion tramankuluak. Hortxe harrapatu zuen Errezumako artaldea erdierdikitik "eta eskerrak zeharka zetorren, zabalera etorri balitz guztiak hiltzen dazkit"...

Erlitio ikuspuntutik zer esanik ez. "Leitzan ez zen birao bakarrik esanen, Plazaola madarikatu hori iritsi ez balitz! "bota zuen praile leitzar batek sermoi oroigarri batetan... Eta ez bakarrik biraoak, lizunkeria? Plazaolan egiten zuten beren eztaibidaia leitzar gehinek. Jakin badakigu bertan galdu zuela emakume garbi batek baino gehiagok bere birjinitatea... Leitzatik Huitzira bitarteko tunelaren ormek hitzegiten balekitez... Ez dut izenik eman nahi, oraindik bizi bait zaigu egindakoren bat edo beste. Eskerrak aipatutako fraidea ez zegoen berri horren jakinen gainean, bestela... Eta harritzekoa al da? Orduarte beti gurasoen aurrean bistatu behar zuten ezkongaiak 2700 metrotako tunel barreneko ilunpean aurkitzean? Eta guzti hori lanbada asmatu aurretik. Arraioa!, horrelako dantzaren bat ezagutu balitz... Ezta makinistatik ere ez zen zeruratuko...

Baina ez dire ezkonberriak Plazaolak bere artxiboetan gorde dituen bidaiari bakarrak. Bada zenbait gizon ospetsu ere orrialde horietan galdurik: Bixente de Huarte San Martin, Reisana-ko gotzaiak, nahiz eta Leitzan jaioa izaki. Ongietorri nabarmena ospatu zioten bere herikideek. Sarreratik, Internazionalaren akordeak... Haien omen ziren Gotzaiaren zalantzak halako musika entzutean. Eskerrak bertan aurkitzen zen Leitzako sakristaua, itzal haundiko gizona hay era, 1902tik 1958ra iraun bait zuen sakristau bezela. Bada, honek argitu omen zizkion gauzak Reisanako gotzaiari, esanez, noski, modan zegoen musika jo zutela eleganteagoa iruditu zitzaielako.

Miguel Primo de Rivera beste pertsonai famatua. Gubernuburu zelarik etorri zitzaigun Leitzara. Berak debekatu zuen herri honetan dantzatzen zen Antzar-dantza. Gogorregizat jo omen zuen antzarrei lepoa mozteko hori. Ez da harritzekoa ez, Diktadore honen sensibilitatea jakinik... Egun berezia hura Leitzako herriarentzat, batez ere Joan Mariren astoaren heriotzeak suposatu zuen kolpeagatik... Primo-ri ongietorria ematearren egundoko arkuak eraiki omen zioten leitzarrek plaza sarreran. Joan Mari astoarekin pasatzekoan, nongait jolasean galditu eta bitartean astoa hagina jan eta jan lehertu arte... Neronek Gazteluneko Joan Kordobani entzun izan nion gertaera honen berri: "Gaur balitz bezelaxe gogoratzen dut ato gaixoaren heriotzea. Hagina pozointsua baita. Beharla zabaldu zen berria herri guzitik. Hura disgustoa. A!, egun hartan etorri zen Leitzara, eztaik, Madrilgo gobernadorea edo". "Primo de Rivera izanen zen, Joan". "Bai, horrelakoren bat"... Bada bai tritea, asto bat agurtzeagatik beste bat hiltzea...

Baina idazlan hauxe luzatzen ari zait eta bukaera eman behar, Gauza asko eta asko gelditu zait kontatzear baina gaurkoz horrela beharko du.

Hainbeste trago pasa eta, oraindik era autobia egin behar digutela? Progresoak ez du kalte besterik ekartzen eta...

Ateraldiak

Ordu pare bat bezalaxe...

laparraldeko eguna da. Ederki bazkalduta "Artadi" txarangarekin atera gara herrira. Josetxo ere hemen dabil berdinduxea.

— Lehengoan gure illoak hartu zien ezkontza horroko aparato horrekin eta telebisioan bota zien. Zertarako yoan eztaieta. Izandute baño hobeki ekusi giñien. Horrei beide ordu pare bat bezalaxe bi pasatzen dittok!

Poitsa limpias

Astaitzagako Joakinak "baile de san vito" izena duen gaitza harrapatu zuen eta Santo Cristo de Limpías-e peregrinazioa egin eta sendatzen zela eta yoan ziren Santanderko herri horretara. Aisoarteko Basilio eta beste batzuk ere yoan ziren Astaitzagakoekin batera. Han yendeketa ikaragarrie eta ez zuten santokristo famatu hori ikusterik izan. Yan eta lo ostatuan egin zituzten eta larrutik ederki pagatu zuten, kristorenak kobratu zizikioten. Etorri ziren Leitza eta Martikonekoek galdetu zioten:

— Ekusi al duzue Santo Cristo de Limpías?

— Ez, Santo Cristo de Limpías-en orde "Poitsa Limpías" ekusi dugu!

Bi errogatira egun berean

Sebastian maisuaren amak, Joanak, Aizkorben zituen senideak. Herri hau Irurtzundik Iruñera goazela ezkerretara dago.

Leitzen eguna yoan eta eguna etorri euria ari zuen atertu gabe. Baztar guziak lizunduak zeuden. Yendeak alorretan lanean hasi nahi zuen baño ekaitzak ez uzten. Eta goiz batean errogatiba egin zuten eguraldia ontzeko. Atsaldean Joana yoan zen Aizkorbera eta han beste errogatiba: lehortea zegoela eta euria egiteko!


Beñea

Kristobal Beñes etorri haundiko bertsolarie eta hilleri parragarinarazteko moduko ateraldiak zituen gizona zen. Haren bertso eta txistek famatuak dira.

Artotxarrak biltzen ari eta ezpada bazterrean zegoen atxoten. Santosek esan zion:

— Patxadan zaude Beñes.

— Hementxe nago buztanari eragiñez!



Haitzmalkorko kanalea egiten gerra aurrean hasi ziren eta gerrondoan bukatu. Han aritu zen Beñes lanean. Enkargatue listak egiten ari zen, bakoitzari noiz yayo zen eta abar galdetzen.

— Zu noiz yayo ziñen Beñes?

— Ni, orantzarro arratsaren bihamonen!

Milagroa belaxe

Mielek hortzak galdu zituen eta bille eta bille ibiliagatik ez zituen aurkitzen. Yakin seguru etxean galdu zituela eta zoko guzik ikusi eta alperrik. Egune yoan eta egune etorri eta hortzik iñon ere azaltzen ez.

Garai hartan ezkilletorren altabozak ziren eta meza, arro-sariqa, sermobeia eta edozein elizkizun herri guzitik entzuten zen.

— Banoa arbi ateratzea Landara eta abadea oihuke: San Franziskon beatzihurrena zela eta hari nai giñun guzie eskatzeko. Eskatu diot nere hortzak azaltzeko. Hamar pauso aurrera eman nittun eta hantxe zeuden arbi-hostoan gañen hortzak. Zillarezkoak galdu nittun eta urrezkoak azaldu zen alajañe!

Soldaduskeko kontuk

Ari ziren soldaduskeko gora-beherak kontatzen. Aleye, instrukzioa, goardiak egiten eta zenbait agintariren zitalkeriak direla medio senperrak ikusten direla. Soldaduen artean ere izaten direla alu galantak baina lagun jatorrak ere egiten direla eta elkarrengandik bereztekoan pena hartzen dela, naiz handik alde egiteko amorratzen egon.

Joanito han zegoen bukatzen ez diren histori horik entzuten eta halako baten hasten da:

— Ni abereekin egondu ninyuen. Baiuen zaldi bat oso mantsoa, oso ona. Nek'e ongi itten neioan. Pentsue erruz eman eta zipillutute garbi-garbi patzen nien. No koadran sartzen nintzen bezala irrintzie itten zien. Etorri huen lizentzitzeko garaie eta kapitanak koadrara yoanda esan zien: "Zabaleta se licecia mañana". Beidetzen diit atzera eta zaldiri negar malkoak ateratzen zezkitzian!

Aitagiarreba azkenetan

Joanito hala-holakoa zen eta bere atteiarreba barrengais-toa, zital hutsa. Beti inki-manka ibiltzen ziren. Zahartzarao allatu zitzion eta ajek azaldu ere bai. Luzaraoan gaizki zegoen. Oso txar zen. Norbaitek galdetu zion:

— Zer moduz daukezue atteiarreba, Joanito?

— Gaizki, gaizki. Gaur gaben hillen ote den espeantza!

¿De qué vais?

"Había un pueblo de ancianos, niños, adultos... pero no existían los jóvenes".

La sociedad actual en general, y la de Leiza en particular vive de manera problemática a sus jóvenes, no sabe donde situarlos, el sólo hecho de ser joven es una situación problemática. Si pensamos nos daremos cuenta que hasta tal punto es problemática la juventud para la sociedad que niega que existan si no es como problema.

La práctica demuestra que los jóvenes nos resultan un problema porque no sabemos que hacer con ellos, no sabemos ubicarles socialmente y a lo mejor no sabemos hablar con ellos, preguntarles que es lo que desean y hacerles partícipes de su propio proceso y realidad social.

No estoy hablando de una categoría de personas sino de una realidad global, de un fenómeno colectivo y de un posicionamiento de los adultos delante de esta realidad. Los adultos catalogan a los jóvenes mediante juicios radicales ya sean por extensión o por reducción: o son delincuentes se drogan y son sospechosos de tener problemas más o menos graves o sino son muy buenos, obedientes y estudian o trabajan mucho.

A veces resultan problemáticas porque chillan, porque van en grupo, por su forma de vestir, por el lenguaje que utilizan o porque no echan los papeles en las papeleras; son un conjunto de personas que parecen sobrar en la comunidad donde están. Cuando un padre riñe a su hijo y éste le contesta "¿tío de qué vas?", el padre ve en el hijo un insumiso contra toda norma y autoridad. Esto no es así, el hijo se enfrenta al padre como adulto, como representante de la norma y de la autoridad de la sociedad, el joven está haciendo algo que es parte de él: se está identificando, se está formando a sí mismo sobre la base de oponerse.

La cuestión de los jóvenes se plantea en un marco adulto cuyas vías de acceso hace tiempo que entraron en crisis y cuyas tendencias a la exclusión de los no privilegiados cada vez son más intensos. Mirado, por ejemplo, desde el punto de vista laboral, a lo mejor, el problema base no es que un joven de 18 años esté parado sino en que las maneras que él utiliza para buscarse la vida no son reconocidas ni aprobadas socialmente por el mundo adulto. Cuando decimos que "los jóvenes no hacen nada" o "no quieren trabajar" deberíamos preguntarnos ¿Acaso nosotros aceptamos que un joven nos intente vender una pulsera de cuero hecha por él? ¿No existe una precariedad en las condiciones de trabajo que se está ofreciendo a los jóvenes? No aceptamos como normal que ellos intenten conseguir dinero sin meterse con nadie sin delinquir, pero con formas que no son habituales, y tampoco aceptamos que rechacen un trabajo cuyas condiciones son más que discutibles.

La mayoría de los adultos estamos analizando su incorporación a nuestro mundo con criterios absolutamente transnochados. En el fondo pensamos que el único sujeto normal es aquél que tiene sueldo fijo, coche y familia. ¿Aceptamos que los jóvenes puedan incorporarse a la sociedad por vías diversas, de acuerdo con otras maneras de ser y de estar en la sociedad? Si sólo aceptamos como ciudadanos a los "adultos formales", automáticamente estamos marginando a los jóvenes con todos los riesgos que ello implica.

A menudo se comete el error de ponerse a pensar y discutir de los problemas que, según nosotros, los adultos, consideramos que padecen los jóvenes, sin detenernos previamente a considerar los rasgos sustanciales de su propia realidad y sin ni siquiera dejarles opinar a ellos sobre sus propios problemas. La realidad actual nos dice que debemos de dejar de considerar a la adolescencia sólo como una situación de paso entre la niñez y la madurez adulta y tenerla en cuenta como entidad en sí, tan importante como la vejez o la niñez. Aunque no lo parezca es bastante contradictorio, así como escasamente progresista y humano cerrar los ojos a la realidad de los jóvenes y esperar para prestarles atención a que sean mayores y tengan problemas.

Debemos resolver el problema de la juventud. Es aceptable que podamos decir de un joven que no es un adulto ni un niño, pero esto no sirve desde el punto de vista social. No es lo mismo ser diferente que no ser nada.

Hemos de respondernos para que queremos a los jóvenes en nuestra sociedad y si esta sociedad sirve para ellos. De lo contrario ellos nos podrán llamar hipócritas. Ante nuestras sugerencias seguirán preguntándonos que pintan en el mundo, en el que están y nuestros argumentos sobre "la necesidad de prepararse para el día de mañana" quedarán totalmente vacíos.

Aunque se sea joven se es ciudadano, por lo que hemos de pensar que les dejamos hacer, que responsabilidades les otorgamos, donde les dejamos decidir y si vamos a contar con ellos para saber que es lo que desean.

Nos preguntaremos que tiene que ver todo esto con nosotros y con nuestra realidad cotidiana. Debemos reflexionar sobre algunos aspectos: ¿Qué alternativas estamos ofreciendo a los jóvenes?, ¿Qué les estamos enseñando?, ¿Si queremos saber sus problemas porqué no se los preguntamos?, ¿Les aceptamos y sabemos vivir con ellos?, ¿Hemos dialogado con ellos como realidad social que son?, ¿Les vamos a dar canales de participación en la comunidad?, cuando se les ha cerrado el Gaztetxe, ¿Se les ha ofrecido alguna alternativa? cuando ellos quisieron dialogar y reconocieron sus errores (cuantas veces les hemos dicho que rectificar es de sabios ¿Cómo respondimos? Estas preguntas y otras muchas han de ser respondidas porque de lo contrario existe la imposibilidad de que los jóvenes den sentido a la realidad que les rodea y podrán seguir preguntando "¿Vosotros de qué vais?". Y nosotros no podremos contestar.

JAVIER TIRAPU



Bittorio kantari

Bittoriok kantatu dazkit Goizuetako Sardearen bertsoak. Sekretarioak Sardeari gezurretan lurra kendu omen zion eta honek bertsoak paratu. Bittoriok gerrakoan ikasi omen zituen goizuetar batek kantatuta.


- 1) Bere izatez barrankesa da
lotsa gutxiko azala
ez nuen uste gizon bat iñon
horrelakorik bazala
ni gezurretan baldin banabil
berak kontra egin dezala
horren paperak garbiak daude
ipurtzuloa bezala.
- 2) Pedro Aizkorbe dauka jaun honek
bataiotikan grazia
gaur Goizuetan sekretario
Barrankan jaio eta azia
ez da Sardia motiborik gabe
bertsoak jartzen hasia
edozein gauza egingo luke
baleuka komenentzia.
- 3) Goizuetarrak ez sinistu
horrek esandako hitzik
santu paperan sartua da ta
ez da bigarren apaizik
asko pertsoni ez dio opa
beriak dituen gauzik
beste zenbaiti herri guzie
emango lioke pozik.
- 4) Horra Sardiak bersuak jarri
giza lege ederran
sekretario barrankes bati
Goizuetako lurrian
ekusirikan nola dabilen
oso tankera txarrian
merezi luke danborra joaz
bialdutzia aurrian.

1990-ko garagarrillak 11

ASTAITZ



Bittorio Martikonekoa eta Bere emazte Prantxiska



Kultur astea eta zenbait aipamen

Ezgaraiak badirudi ere, pasa zen Kultur Asteari buruz idatzi nahi dugu. Aurtengo saio hau burutu ondoren zerbait errepikatze edota esateko gelditu zaigula iruditzen zaigu.

Balorazio orokor bat eginez, esan beharra dago, espero genuen baino emaitza hobekoak lortu direla neur-gailu ezberdinak erabiliz.

Astearen barna eskeintzen denaz gain, jendearen parte hartzea eta hauen komentarioak hartu dugu oinarritzat.

Dudarik gabe, ekitaldi guztiak ezin daitezke termometro berdinez neurtu. Denak guztientzat eginak izan arren, batzuk "masiboak" gertatzen dira, beste batzuk mugatuak berriz. Eta hortxe egon daiteke asaberasteko bidea ongi asmatu ezker. Aipatu ditugun lehendabiziko hauetan Herriko jende gehiago mugitu dela, nabari izan da, besteetan berriz (hizaldiak,...), oraindik ere, nagitasuna (perezia alegia)edo... gaindutu behar dugula iruditzen zaigu. Oso oportazio baliogarriak lortu daitezke dagoena aprobetxatuz, dagoena hopeto egon daitekeela jakin arren.

Beste puntu bat eta kezkarria gertatzen dena, arlo ekonomikoa izaten da. Hasera batetan esan kosto osoa 1.700.000 pezetakoa izan dela eta horra iritsiz gero nola do hala bete egin behar da. Aurtengo Nafarroako Gobernua eta Lan Kide Aurrezki Kutxatik laguntza jaso dugu zenbait ekitaldi babestuz. Bestetik Udalak, Herriko tabernariak, dendariak, Elkartek, Entrepresak (SARRIO salbu),... borondatez ematen dutena, eta benetan eskertzekoa dena. Hemen falta dena herritarren poltsikoetatik atera behar du. Hala ere hau dena kontutan hartuz, emaitza positiboa izan da, balantze baikorra. Beraz aurtengo diru "pixko"bat sobratu da eta honek animantzen gaitu gehiago (joan den urtean 150.000 pezetetako galera izan bait zen) eta honek urtearen zehar beste zenbait ekitaldi antolatzeko posibilitatea eskeintzen du.

Antolakuntza lanetan ere, jendearen parte hartzea handitu edo gehitu da eta noski baikor jotzen dugu Herriarentzat egiten diren ekitaldi hauetan konpromezu handiagoa hartzen bait da. Alde honetatik animatu nahi zaituztegu, zeuen oportazioak, denen eritziek aberastu bait dezakete gero eta hobea egin nahi den Kultur mai-lako astea. Beraz ongi atera dena aprobetxa dezagun hobeko, baliogarriagoa izateko. Eta ere batetan edo bestean parte hartu duzuenoi eskerrak, ea zer antolatzen dugun hurrengoan?

Adagio. OROIMEN UNE SOLITARI

Badira gure bizitza xumean
liliaren dardara
baino une hauskorragoak.

Ihintzak dantzatutako
kukupeña esnatzen lez
ene arima umea
agerian datza,
gai-geza,
doluaren lipar txiki batek
astindua.

Zure ispiluzko irudia
begiratzen dudan oro
ñir-ñir koloretsu horrek
nire izatea kilikatuz
mirespena dardarkit.

Ez diezadala ohostu
inork
zure arimaren islada.



ANA

* Jeunee denda
* Ferta zoriontsuak
opa dizkione

PATXI ARRAZOLA, 9

Leitza



Chimeneas **GAZTELU**

Sistemas de

Calefacción AGUA Y AIRE

EXPOSICION:

Elgoien, 32 - LEITZA
(Navarra)



TALLER DE CANTERIA
TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL
REVESTIMIENTOS DE FACHADAS DE PIEDRA
ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS,
FOGONES "ESTILO VASCO"
CRUCES Y LAPIDAS
CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS
EN PIEDRA

TRANSPORTES

LES DESEA FELICES FIESTAS

Telfnos.: Taller 51 04 47
Domicilio 51 01 11

LEITZA (Navarra)

Pedro Telletxea

- Construcciones
- Albañilería en general

P. Arrazola, 12, 2.º A - Tel. 510580

Jai zoriontzuek opa dizkizue

Martin Lizarraga

Carnicería y Charcutería

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono 510283

Gregorio Sagastibelza

Constructor y Albañilería
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 00 59 LEIZA

FOTO MUGICA ARGAZKIAK

MONTAJES DE
IMAGEN Y SONIDO,
COPIAS, ETC.

FOTOS CARNET EN
EL ACTO
MARCOS
FOTOCOPIAS
GAFAS DE SOL

GRABACION VIDEO y FOTOS

BODAS
HOMENAJES
FIESTAS

ESTUDIO
EN

C/ OBISPO HUARTE

TFNO. 51 04 40

LEIZA

EROSLE

Supermerkatua

Tfno.: 51 00 36

“BIOK” JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta Leitza
umeentzako jantziak.

Elbarren 32 kalea

«GAZTETXO»

Goxotegi eta jolas lekua

*Pesta zoriontsuak
opa dizkizue*

JANARI DENDA ZABALETA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 04 28

LEITZA

ARDOTEGIA

LENITZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 03 33 eta 51 04 86

LEITZA

TXOKO

Taberna, Jatetxea
Ostatua, mantenu osoa


JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 51 02 27

Oparigaiak, kirolgaiak, e.a.

TXAPA PINTURA **LEITZA** KARROZERIA

TXAPA KONPONKETA, KABINAN EGINDAKO PINTAKETA
ETA LABEAN EGINDAKO LEHORKETA, KOLPE HAUNDIEN
KONPONKETA (BANKADA)



LEITZE - LARREKO ERREPIDEAN - Tel. 51 04.60 - 51 05 58 (Etxekoo) - LEITZA

**MANDRILADORA
LEIZA**



S. Coop. Ltda.
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Fabrika Geltokia A., z/g Tel.: 510.262 LEITZA

**TABERNA, ERRETEGIA
MENDIZABAL**

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elgoien, 22 Tel.: 510.128 LEITZA

Herbodietética BELARRA

Janari denda

Elarren, 35
Tfno. 51 01 92
Leiza

*Jai zoriontsuak,
opa dizkizue
zorionak*

GARAGE LEITZA

AMAZABAL, 29 KALEA

BEREBILL KLASE GUZTIETAKO
KONPONKETAK ETA EROSI SALDUKETAK
PEUGEOT-TALBOT AGENTZIA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
TEL: 51 04 66 LEITZA

**J. M. HERNANDORENA HUARTE
BARDINDENDA - GARBIGAI DENDA**

OPARIGAIK - GARRAIOA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.055

Astiz Zurgindegia, s. l.

Sukaldeko haltzariak eta oparigaiak
Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Teléf. 51 02 85 Leitza

**Ignacio
Arrarás**

Bodegón - Vinos, Sidra
y licores
Cervezas El León y Codorniu
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 03 53

**SUCESIONES DE
JOSE
GOMEZ**
COMERCIO DE TEJIDOS
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tfno. 51 01 30

Vda. de Lázaro Erviti

SERRERIA MECANICA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Teléf. 51 00 08 LEITZA

**ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKINTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.374

LEITZA

BIKOITZ

Gozotegia - Taberna

Tarta, pastel eta opiletan espezialitatea
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 16

Tel.: 510.072

LEITZA

ASTIZ

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA

Eskolarako eta kiroletarako gaiak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 28

Etxeko tel.: 510.405

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Telefono: 51 04 99
Jai zoriontsuak opa dizkizue

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1

LEITZA

KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa
dizkizue

LEITZA

Irurak

ARRANDEGIA

*Eguneko arrainak
mariskoak*

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.491

Elbarren K. LEITZA

JOSE ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA Tel.: 510.282

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.259

Elgoien kalea, 15

"GARBI"

Garbigaidenda

Usaidenda eta

Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.173

PLAZA Autoeskola

SEGUROS - GESTORIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Huarte Gotzaia K., 8

LEITZA

Tel.: 510.338



PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan
espezialitatea Urdaitegia

Tel.: 510.164

Jai zoriontsuak opa dizkizue



ERBITI AIZKORAK

Tomas Erbitiren alarguna
Aizkol txapelketetarako
aizkora garantizatuen fabrika

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.060

AZPIROZ ETXEA

JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 02 46 LEITZA

KOXME ZABALETA

Ultramarinos

Pesta onak opa dizkizuegu

LEITZA

«ELKAR»

Ileapaindegiak

Pesta onak opa dizkizue

LEITZA

BASA-KABI HOTELA

Jatetxea, logelak
SNACK BAR

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZAKO GAINA

Tel.: 510.125

GAZTAÑAGA Taberna

Ogitartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 04 34

ETXE - TRESNAK

ARGI-INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO

RADIO eta TELEBISTEN KONPOKETA
TELEBISTARAKO ANTENA JARTZEA
ELETRICIDAD INDUSTRIAL
T.V. - HIFI - VIDEO

REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V.

Urrutizkinak: 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA (NAFARROA)

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE

MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa
Tfnoa: 51 05 61

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

CHAPA - PINTURA - KARROZERIAK

GURIA
(P. KALDERON)

«REPARACION DE VEHICULOS. PINTADO EN
CABINA, SECADO AL HORNO»
PINTURAS NACARADAS - PERLADAS
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL.: 51 02 55

LEITZA

LANDA TABERNA

Giro jatorra musika ederra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA



CITROËN

SARALEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 510490

LEITZA

JOSE MIGUEL URKIOLA ESNEKI AK

Jai zoriontsuak opa dizue

LEITZA

OIALDE TABERNA

Bazkalurrekoak
eta ogitartekoak
Kafeak, ardoak
eta likoreak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 510.077

LEITZA

**JOSE IGNACIO
ARZALLUS**

Harategia - Urdaitegia

HEMENGO GAZTAK

Jai zoriontzuak opa dizkizue

LEITZA
Tel.: 510.377

BERASTEGI
Tel.: 674.534

**KAFETEGIA
GOZOTEGIA**

NEKANE

TEL: 510328

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

SE RECOMIENDAN ENCARGOS DE
TARTAS Y PASTELERIAS

ARAKINDEGIA

JATETXEA

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

Tel. 510052

**ZURGINTEGIA
TOMAS ALKOZ**

"MARTIKO"

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEITZA

J.A. URKIOLA
Harategia, Urdaitegia

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel... 510.467

LEITZA



Poligono Industrial Albusualde, s/n
Tfno. (948) 50 44 10 • Fax (948) 50 44 40
LECUMBERRI (Navarra)

ERAIKETARAKO MATERIALAK

- P.V.C.zko. tuberiak
- Polietilenozko tuberiak
- Ormigoiezko tuberial
- Burdinlanak
- Adreiluak
- Porlana
- Igeltsoa
- Blokeak
- Mota askotako teilak

ISOLAMENDUAK

- P.V.C.zko leihoak
- Teilatu faltsoak
- Segurtasun materialak

MATERIALES DE CONSTRUCCION

- Tubería P.V.C.
- Tubería polietileno
- Tubería Hormigón
- Forjados
- Ladrilloa
- Cemento
- Yeso
- Bloques
- Teja varios modelos

AISLAMIENTOS

- Ventanas P.V.C.
- Falsos techos
- Material de seguridad

AURREKONTUAK EGITEN DIRA

SE HACEN PRESUPUESTOS

KERAMIKA ETA BAINU, BAINUGELARAKO TRESNARIA, GRIFO ETA
KOMUNAK, MANPARAK, ETA ABARREN ERAKUSKETA HANDIA.



**BANCO DE
VASCONIA**

**Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa dezazuela**

LEITZA

Tel.: 51 01 38

Arrandegia Kaia

Pescados y mariscos selectos

*jai zoriontsuak
opa dizkizue*

C/ Elgoyen, 20
Telf. 61 07 33

Leiza

Ana Arraindegia

Eguneko arraiak
eta izoztuak

*Jai zoriontsuak
opa dizkizue*

Urritzkinak: 61 06 81
51 01 18

**Jesús
Bulela**

Carnicería y Charcutería
Tratante de ganado

Teléfs. 51 01 67

**BELEN
Oinetakoak**

D.N.I. 34.089.484
Calle Elbarren, n.º 52
LEIZA
(Navarra)



**Sukalde eta bainu ekipamenduak
Fabricación de Cocina y Baño**

**Kalitatearen ezaugarria
El símbolo de la calidad**

Tfno. 510311

Fax. 510529

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

«AREKOZUBI»

ARDOAK

Manuel Lasarte, 5
Tfno. 510453 - 510230

LEITZA

CONSTRUCCIONES SAGASTIBELZA Y ARTOLA

Albañilería en general


Elbarren, 86-2.º izq.
Tfno. 51 02 65

LEIZA (Navarra)



MATERIAL DEPORTIVO
KIROL TRESNAK
LEITZA

TEL. 510 087



Azpiroz y Saralegui

- ▷ Zerbitzu orokorreko herrilanak
- ▷ Eroate lanak
- ▷ Hirigintz lanak
- ▷ Indusketak
- ▷ Ormigoï armatua
- ▷ Zolatzeko tresnariarekin egindako ormigoïezeko errei eta arekak.
- ▷ Obras públicas
- ▷ Conducciones
- ▷ Urbanizaciones
- ▷ Excavaciones
- ▷ Hormigón armado
- ▷ Viales y cunetas de horgon con maquina pavimentadora.

Obrek direla eta sortzen ditugun arazo eta eragozpenen aurrean izan duzuen ulerkortasuna eta jarrera ona eskertu nahi dizuegu.

Queremos agradecerles su buena disposición y comprensión ante las molestias que les estamos ocasionando con las obras de Leitza.

CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI

OFICINAS

Manuel Lasarte, 5
31880 LEIZA (Navarra)

Polg. Industrial Albisualde, s/n
31870 LECUMBERRI (Navarra)
Teléfono (948) 50 44 40

DROGUERIA-PERFUMERIA
MARIA ANGELES

Tel. 51 01 86

LEITZA (Navarra)

LEITZATARRA Taberna

IREKITA GOIZEKO 7'30 ETATIK

Tel.: 510.352

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TALLERES
LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de
maquinaria agrícola, bicicletas y motos

Jai zoriontsuak opa oizkizue


Goriztaran, 41 Tfono. 51 04 04 LEITZA

KAFETEGI
EDARITEGIA

XAXARI

Jai zoriontsuak opa dazkizue

Elcoyen, 6 Tlf. 51 03 75 LEITZA



SARRIÓ, S.A.


*Jai zoriontsuak opa dizkizue
Herritar eta bisatari guztiei*



GANI

**NAFARROAKO
AURREZKI KUTXA**

*GORA SAN TIBURTZIO!!!
AUPA LEITZA!!!*



JAI ZORIONTSUAK

ORA DIZKIZUE

